

MEMORIA 2021

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Siglak eta akronimoak

eLankidetzeta	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	NBE	Nazio Batuen Erakundea
BEK	Garapenerako lankidetzaren alorrean profesionalak espezializatzeko beka	Osakidetzeta	Euskal Osasun Zerbitzua
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa	PRE	Ekintza humanitariorako proiektuak finantzatzeko lerroa
EHE	Ekintza humanitarioko esparru-estrategiak finantzatzeko lerroa	PRO K1	Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzak
GBA	Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuetarako laguntzak	PRO K2	Produkzio-garapenerako eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak
IZE	Dirulaguntza nominatiboak	PRO K3	Garapenerako hezkuntzako proiektuetarako laguntzak
(H)ABIAN 2030	Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren euskal estrategia	SEAD	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa
GJH	Garapen Jasangarrirako Helburuak	SAR	Garapenerako lankidetzaren <i>Ignacio Ellacuría</i> saria
GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea	ZUZ	Zuzeneko dirulaguntzak

2021a laburrean

2021ean emandako dirulaguntzak

 **155** ekimen

 **7** dirulaguntza-lerro


 **800.000** pertsonak baino gehiagok izan zuten laguntza

 **45** herrialde


 **48.6** milioi euro eman ziren




GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESA




AFRIKA




GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA EGOERA BATZUK



EMAKUMEEN AHALDUNTZEA



HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK




EUSKADIN GAUZATUTAKO EKIMENAK

Plangintza eta araudia



(H)ABIAN 2030ren oinarritzko lerroa



Lankidetzaren teknika Eusko Jaurlaritzatik



4 pertsona



Osakidetza



2 herrialde (Ginea Bissau eta Ekuatore Ginea)



Sarrera

Gaur egun, interkonexio globalak erronka partekatuen aurrez aurre jartzen gaituen errealtate bat da. Ziurgabetasunezko garaietan bizi gara, eta horretaz baliatu behar dugu bidezkoagoak, berdintasunezkoagoak eta jasangarriagoak diren gizarteetarantz bide egiteko. Iragate horretan, garapenerako lankidetzak mehatxu globalak gainditzen eta eraldatzen lagunduko duen elkargunea izan behar du, eta tokiko inpaktu bereziak aintzat hartuz, lankidetzaren eta eza-gutza trukearen bitartez egin behar du.

Horretarako, eLankidetzan-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian uste dugu lankidetz-politikak arazo konplexuei aurre egiteko gaitasuna duten tresna eraginkorrez hornitu behar direla. Krisiak eta desparekotasunak areagotzen ari dira, eta lankidetzak erronka horiei erantzun behar die, beste eragile batzuk erantzukide bihurtuz eta zenbait lurraldetako askotariko eragileen arteko aliantzak bultzatuz.

COVID-19ak eragindako krisiak oso baldintzatuta egon zen 2020aren ondoren, 2021ean nolabaiteko normaltasuna itzuli zen, eta eLankidetzan aurreko urtean iragarri ez ziren tresna-deialdi gehienak berreskuratu ziren. Era berean, euskal lankidetz-eragileek lagundutako proiektu eta prozesu ugari, pandemiaren ondorioak moduren batean pairatu zituztenak, berriz bideratu ziren normaltasun berri delakoan.

2021ean, lankidetzari eta elkartasunari buruzko euskal lege berria sortzeko prozesuari ekin genion, lan-esparru partekatu berria eskainiko diguna. Gainera, koherentziaren eta koordinazioaren mesedetan, erakunde publikoekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren barruan lan egiten

jarraitzearen alde egin genuen. Baterako ekimenen artean, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuko garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko lehen txostenaren argitalpena nabarmentzen da.

Illo horretan, eta osasun globalerako ekarpena egiteko asmoz, Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak *Jarduera-protokolo orokor* bat sinatu genuen, zeinak osasun-lankidetzako ekintzak barne hartzen baititu. Halaber, *COVID-19rako txertoen patenteak aldi baterako etetearen aldeko euskal adierazpena* bultzatu genuen eta, lankidetz deszentralizatuko beste agentzia batzuekin batera, COVAX-AMC¹ mekanismoa babestera bideratu genituen funtsak, txertoetarako bidezko sarbidea bermatzeko asmoz.

Beste lankidetz-erakunde batzuekin elkarlanean jarraitzeko gure erabakia dela-eta, Kolonbian bake-prozesua aldezteko beste estatu-agentzia batzuekin batera lan egin genuen, eta duela zenbait urte Guatemalan hasitako antolaketa jarraitu genuen. Horrez gain, Afrikako erakundeekin batera zenbait mintegi eta ekimenetan lagundu genuen eta tresnen eta ikerketen bidez erakunde humanitarioak eta lankidetzakoak sendotzeko ekarpenak egiten jarraitu genuen.

Paul Ortega Etcheverry
eLankidetzako zuzendaria

¹ COVAX-AMC (Advance Market Commitment for COVID-19 Vaccines, ingelesezko siglengatik) eragile publikoen eta pribatuaren finantzaketa-tresna da, COVID-19aren aurkako txertoetarako bidezko sarbidea bermatzeko xedea duena.



Aurkibidea

01. JARDUEREN URTEKO MEMORIA

- 1.1. [Garapen jasangarrirako politiken koherentzia eta erakundearteko koordinazioa](#)
- 1.2. [Eremu estrategikoak](#)
- 1.3. [Giza eskubideak](#)
- 1.4. [Generoa](#)
- 1.5. [Afrika](#)
- 1.6. [Ekintza Humanitarioa – gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk](#)
- 1.7. [Gizarte-eraldaketarako hezkuntza](#)
- 1.8. [Jakintzaren kudeaketa](#)
- 1.9. [Jardun geografikoak](#)
- 1.10. [Komunikazioa](#)
- 1.11. [Arau-berrikuspena](#)
- 1.12. [Bitartekoak](#)

02. AURREKONTU-EGIKARITZEA ETA EMANDAKO FUNTSAK

- 2.1. [Aurrekontu-bilakaera](#)
- 2.2. [eLankidetzaren aurrekontu-egikaritzea](#)
- 2.3. [Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomoen aurrekontu-egikaritzapena](#)
- 2.4. [eLankidetzak 2021ean emandako dirulaguntzak](#)



Jardueren urteko memoria

Kapitulu honetan, 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren lehen zatia jarraikiz (hemendik aurrera, IV. Gida Plana), eLankidetzak 2021ean egindako ekimen nagusiak bildu ditugu.

Horrez gain, 2021ean AUZO(LAN)KIDEEK egindako aurrerapenen berri ere eman dugu, kapitulu honetako ataletan².

1.1. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia eta erakundearteko koordinazioa

eLankidetzan uste dugu garapenerako politiken koherentzia, baterako lana eta erakundeen arteko koordinazioa funtsezkoak direla erronka globalei aurre egiteko. Horregatik, guztia-gatik, lan-ardatz hori bultzatzen eta indartzen jarraitzen dugu, bai Eusko Jaurlaritzaren barruan, bai beste erakunde batzuekin.

² AUZO(LAN)KIDEEK askotariko ekimen esanguratsuak dira, eLankidetzako IV. Gida Planarekin bultzatu nahi ditugun ikuspegiak indartzeko baliagarriak direnak, lan egiteko modu berriak sortuz.



1.1.1. Garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko lehen txostena

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak 2020an egindako mandatuari erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako politiken koherentziako analisiari ekin genion; giza garapen iraunkorraren ikuspegitik, balioetan eta hezkuntza politiketako prestakuntzan, hain zuzen. Amaierako dokumentua, laburpen batekin eta infografia batzuekin batera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko politiketako koherentziarako lantaldean aurkeztu zen, baita Kontseiluan bertan ere. Txostena eLankidetzak, Hezkuntza Sailak eta Kontseiluko lantaldeak bultzatu zuten. Jarraian, txostenaren ondorio nagusiak.

Laguntza-elementuak	Hobetzeko aukerak
<ul style="list-style-type: none"> + Giza garapen jasangarriaren sustapenarekin eta babesarekin konpromisoa. + Eusko Jaurlaritzan koordinazio eta topaketarako egitura eta tresnak. + "Beste belaunaldiekin eta planetarekin" ikuspegiaren garrantzia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza planak, estrategiak, programak eta proiektuak txertatzeko erreferentzia-esparru bat lantzea. - Hezkuntza Sailaren barruan eta sailen artean koordinazioa eta koherentzia hobetzea. - Antolamenduaren diseinuan eta praktikan koherentzia kontuan hartzea. - Antolaketa tresna eta dinamika berriak aldaketen ebaluazio, komunikazio eta orientazio koherentzia bermatzeko. - Epe ertain edo luzeko pentsaera inpaktuaren ebaluazioetan eta neurketan. - Arreta beste gizarte batzuekiko konpromisoetan eta ondorioetan.



[Amaierako dokumentua](#)



[Laburpena](#)



[Infografiak](#)



[Bideoa](#)

1.1.2. Osasun globalerako ekarpena

2030 Agendaren lehen txostena euskal programan jasotako proiektu esanguratsuetako bat Osasun Globala da. Proiektu horrek eLankidetzaren, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean koordinatutako jarduketarako osasun-lankidetzaren arloan. Horregatik, 2021ean, erakundeon arteko [Jarduera-protokolo orokorra](#) sinatu zen, osasun-lankidetzaren eremuan batera egindako jarduketek esparru komun bat izan dezaten. Esparru horretan, 2021eko irailean, Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak osatutako ordezkaritza batean Ginea Bissaura bidaiatu genuen aurreikuspenen arabera 2022an hasiko den osasun-lankidetzako ekimen bat identifikatu eta zehazteko.

Txertaketa globalari laguntzeko konpromisotik abiatuta, maiatzaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak, Lehendakariaren bidez, [COVID-19rako txertoen patenteak aldi baterako etetearen aldeko euskal adierazpena](#) onetsi zuen. Ekimena Amnistia Internazionalarekin, Oxfam Intermónekin eta Mugarik Gabeko Medikuekin batera sustatu zen. Gainera, eLankidetzatik berariazko babes-baliabideak bideratu genituen COVAX-AMC mekanismora, sarbide-muga handienak dituzten herraldeetan biztanleen txertaketarako bidezko sarbidea bermatzeko. Ekimen hori beste autonomia-erkidego batzuekin batera egin genuen, keinu solidario gisa [-ikusi 1.1.4. apartatua-](#).





Bestalde, Osakidetzako profesionalek Larrialdietan Laguntzeko eta Erantzuteko Espainiako Talde Teknikoan (START³, ingelesezko siglengatik) parte hartzea errazten jarraitu genuen. Bata hirian (Ekuatore Ginea) armategi militar bat lehertu ondoren, tokiko agintaritzek nazioarteko laguntza eskatu zuten pazienteei arreta emateko eta tokiko osasun-langileak prestatzeko. START taldeko 14 pertsona –11 osasun-langile eta laguntza humanitarioko 2 aditu– tokiko talde kirurgikoarekin elkarlanean aritu ziren, Osakidetzako kirurgialari bat barne.

“ Bizi nituen gauzarik onenen artean, hango langileen lanerako gaitasuna ikustea izan zen, haiek arduratu baitziren zati gogorrenaz, hasierakoaz. Erabat gainezkatzeko modukoa izan zen bat-batean 600 pazienteri arreta eman behar izatea, hiru ospitaletan, ordu gutxitan. Tokiko langileekin integratu eta eskuz esku lan egin ahal izatea oso interesgarria izan zen.

*José Antonio Romeo
Arabako Erakunde Sanitario Integratuko kirurgialaria.
Iturria: Diario de Noticias de Álava*

1.1.3. Erakundearteko koordinazioa Euskadin

2021ean, lankidetzarako eta elkartasunerako euskal lege berria sortzeko erakundearteko barne-lan bizia dinamizatu genuen -[ikus 1.1.1.1. apartatua](#)-. Horrez gain, azken urteetan babestu ditugun baterako bi ekimenetan jarraitu genuen.

Ertamerika-Euskadi ur eta saneamendu arloko erakundearteko lankidetzaren programa

*Ertamerika-Euskadi ur eta saneamendu arloko erakundearteko lankidetzaren programaren⁴ lehen edizioa, 2018-2021ekoak, amaitu ondoren, ekimenaren **sistematizazioa** garatu genuen bigarren edizioari, 2021-2024koari, begira. Helburua da gomendioak lortzea eta jardunbide egokiak identifikatzea.*

Sistematizazioa programaren bi elementu esanguratsutan ardatzatu genuen: lankidetzaren teknika –Ipar-Hego ekintzen, Hego-Hego ekintzen eta ekintza triangeluarren metodologia eta emaitza nagusiak berreraikitze- eta erakundearteko koordinazioa –eragile anitzeko esperientzia eta haren emaitzak sistematizatzeko-.

Gomendio nagusiak

- ▶ **Lankidetzaren triangeluarren buruzko ikuspen estrategikoago bat** sortzea.
- ▶ **Froga sorkuntza** sustatzea.
- ▶ Euskal lankidetzaren **gaitasun tekniko** eta herrialde bazkideen **beharren arteko lotura estutzea**.
- ▶ **Genero-ikuspegiaren txertaketan** sakontzea.
- ▶ Modu birtualean ezarritako jardueretako **jardunbide egokiak** aztertzea.
- ▶ **Euskal lankidetzaren erakundearen rola** birdefinitzea eta **jakinarazpen-sistema homogeneo bat** definitzea.
- ▶ **Ezagutza kudeatzeko sistema bat** abian jartzea.
- ▶ Programa euskal gizartearen **ezagutzera emateko estrategiak** definitzea.

³ START taldea autonomia-erkidegoetako osasun publikoarekin lotutako osasun-langileez, logistez eta ekintza humanitarioaren arloko adituez osatuta dago. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECID) koordinatuta eta Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) onetsita dago.

⁴ Ekimen honetan Euskadiko lankidetzaren eta uraren arloko eragileek parte hartzen dugu, Ertamerikako uraren arloko operadoreekin batera: eLankidetzaren, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, Euskal Fundera, URA-Uraren Euskal Agentzia, Vitoria-Gasteizko Udako Urak SA (AMVISA), Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (BBUP), Gipuzkoako Ur Partzuergoa - Gipuzkoako Urak, El Salvadorako Akueduktuen eta Estolderien Administrazio Nazionala (Administración Nacional de Acueductos y Alcantarillados edo ANDA) eta Costa Ricako Akueduktuen eta Estolderaren Institutua (Instituto Costarricense de Acueductos y Alcantarillado edo AyA).



Identifikatutako jardunbide egokiak

- Hego-Hego, Ipar-Hego eta Hego-Ipar **ezagutzaren sorketa**.
- Beste esku-hartze batzuekiko **sinergiak** atzemeteko potentzialtasuna.
- Testuinguru zehatzetarako **egokitzapena**.
- Euskadiko eragileen artean **ahaleginak bateratzeko aukera**.

Sistematizazio-prozesuarekin batera, edukia zehaztu, eta hasi zen bigarren edizioa, 2021-2024koa. Hauek dira berritasun nagusiak:

1. Jocaroko (El Salvador) ur eta saneamendurako azpiegitura berria.
2. Lankidetzarekin eta gaitasunak sendotzearekin lotutako osagaiaren eskualdeko hedadura, eragile berri bat barne hartzearen ondorioz: Edateko Uraren eta Saneamendua-
ren Ertamerika eta Dominikar Errepublikako Foroa (Foro Centroamericano y República Dominicana de Agua Potable y Saneamiento edo FOCARD-APS).

Euskal lankidetzaren publikoaren ataria eguneratzea

Urtero bezala, **Euskal lankidetzaren publikoaren ataria** eguneratu genuen, 2020ko datuekin. Urte horretan, garapenerako lankidetzaren euskal erakunde publikoek 770 ekimen bultzatu genituen 62 herrialdetan, horretarako 67,2 milioi euro jarri.

Atariko urteroko datuak ikusteko moduan aurkezteko helburuarekin, **Euskal lankidetzaren zenbakitan 2020** txostena egin zen; bertan, guztizko datuak biltzen dira, baita aldagaia –eragileak, kokapen geografikoa, modalitateak, etab.– bereizitako datuak ere. Apustua, garrantasun-ariketa gisa, txostena urtero egitea da.

⁵ Topaketan, urtero, autonomia-erakundeetako ordezkariak eta estatuan, Europan zein nazioartean garapenerako lankidetzaren eremuan diharduten beste eragile batzuk biltzen dira. Haren xedea da lankidetzaren deszentralizatuaren egoera analizatzea eta etorkizunean izango dituen erronkak identifikatzea.

Atariaren erabilera 2021ean



1.1.4. Erakundearteko koordinazioa autonomia-erkidegoetako lankidetzaren agentziekin

Autonomia-Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren XIV. Topaketa

Eskualdeen zereginak krisi globalei emandako erantzunean duen garrantzia izan zen *Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren XIV. Topaketaren*⁵ ildo nagusia, zeina azaroaren amaieran izan baitzen, Extremaduran.



Topaketaren amaieran, [baterako adierazpen](#) bat egin zen eta, bertan, konpromiso hauek hartu ziren:

- ▶ Lankidetzaren deszentralizatuko eragile guztien **erakundearteko koordinazioan** etengabe aurrera egitea.
- ▶ **Lankidetzaren kalitatea** hobetzea, erakundeen kultura politikoa eta administrazio-kulturan aldaketak txertatuz.
- ▶ **Herritarrak** gizarte justuagoak lortzeko inplikatzeko.
- ▶ **Aurrekontu-konpromisoan** aurrera egitea.
- ▶ COVID-19aren aurkako **txertaketa-prozesua** babestea, nazioarteko funtsei egindako ekarpenen bidez (2,64 milioi euro).

Urtero, gune horretan, aintzatespen bat ematen da. 2021ean giza eskubideen defendatzaileen aldi baterako harrerarako programen sareak egindako lanarentzat izan zen; sarea zazpi programek osatzen dute, eta, bertan, gobernu autonomikoetako, udal-gobernuetako eta sozietate zibileko erakundeek bat egiten dute, Eusko Jaurlaritzako programa barne [-ikusi 1.3.2. apartatua-](#).

Kolonbian bakea eraikitzen laguntzeko baterako lana

eLankidetzaren, Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Extremadurako Agentzia elkarlanean gabilta Kolonbian bakegintza bultzatzeko ahaleginetan, Bakerako Sistema Integralaren mekanismoei lagunduz.

Ekimenaren helburua da hiru agentzien arteko koordinazioa sustatzea, baliabideak eta gaitasunak bateratuz Egia argitzeko, Bizikidetzarako eta Berriz ez gertatzeko Batzordeari, Bakerako Jurisdikzio Bereziari eta Desagertutzat jotako Pertsonak Bilatzeko Unitateari laguntza integralago bat eman ahal izateko. eLankidetzaren gure gain hartu dugu Batzordeari laguntzeko lidergoa.

Hiru lankidetzaren agentziak eta Kataluniako Generalitateko Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia azaroan bildu ginen, Bartzelonan, Bakerako Sistema Integralaren hiru mekanismoetako ordezkari gorenekin. Bilera horretan, ezarritako antolaketa ezagutarazi genuen eta batera jarduteko ildo posibleak arakatu genituen.

Lankidetzaren agentzien arteko koordinazioa Guatemalako trantsizioko justiziaren inguruan

Lotura instituzionalak indartzeko eta esperientziak trukatzeko asmoz, Guatemalako Giza Eskubideen prokuradoreak, Augusto Jordán Rodasek, Prokuradoretzako lankidetzako zuzendariak, Gabriela Mundok, eta Guatemalako Auzitegi Antropologiako Fundazioko programen zuzendariak, Nancy Valdez, Katalunia eta Euskadi bisitatu zituzten azaroan.

Bi erakundeak Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziarekin batera babesten ditugun eta Guatemalako barne-gatazka armatuan (1960-1996) desagertutako pertsonen bilaketan ardaztuta dauden proiektuen bazkideak dira.

Euskadin, ordezkariak Eusko Jaurlaritzarekin, Eusko Legebiltzararekin eta Arartekoarekin bildu zen, baita memoria historikoarekin, giza eskubideekin eta lankidetzarekin lotutako erakunde akademiko eta sozialekin ere. Gainera, Gernikara joan zen herriaren bakearen aldeko esperientziaren berri izateko.



Argitalpen berria: *Archivo Histórico de la Policía Nacional de Guatemala 2005-2017*

- ▶ [Archivo Histórico de la Policía Nacional de Guatemala 2005-2017](#) liburuak, zeina 2021ean argitaratu baitzuten Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziak, Kataluniako Artxibo Nazionalak, Bakerako Suitzako Fundazioak (Swisspeace), Suitzako Atzerri Arazoetarako Sail Federalak eta eLankidetzak, erakunde horrek Guatemalan egiaren eta justiziaren alde gauzatu diren prozesuetako funtsezko zati gisa duen garrantzia azpimarratzen du⁶.
- ▶ Argitalpenak ikuspegi bikoitzetik sistematizatzen du artxiboaren esperientzia: artxiboaren ikuspuntutik eta bakeari eta giza eskubideen indarrari egindako ekarpenaren ikuspuntutik. Horrela, esperientzia horretatik ateratako irakaspenak beste testuinguru batzuetan ere izan daitezke erabilgarriak, iraganari heltzeak eta dokumentu-funtsak kontserbatzeak dakartzan erronkei aurre egitean.

1.1.5. PLATFORMAREKIKO ELKARLANA

2021ean PLATFORMA koalizio paneuroparrarekin garatutako berrikuntza-ildoetako bat izan zen proposamen metodologiko bat garatzen hasia Europar Batasunak zenbait herrialdetan dituen ordezkaritzekin toki-garapeneraren lurralde-ikuspegiaren inguruko elkarrizketak sortu ahal izateko. Ildo horretan, eLankidetzatik Kolonbian dagoen ordezkaritzarekiko elkarrizketako liderrak bihurtu ginen.

2021eko maiatzean, web-mintegi bat egin genuen, non Kolonbian 2019an izan ziren gizarte-mobilizazioen eraginari buruzko ikerketa bat aurkeztu zen, baita garapenerako lankidetzako estrategietan ere, bereziki lankidetzaren deszentralizatukoetan.



[Ikerketa](#)



[Web-mintegia](#)

⁶ Polizia Nazionalaren Artxibo Historikoa balio historiko, sozial, zientifiko eta judicial kalkulazina duen dokumentu-funtsa da eta ezinbesteko tresna bihurtu da Guatemalako barne-gatazka armatuko (1960-1996) gertakari ugari argitzeko.

Era berean, lanean jarraitu genuen, Europako beste eragile batzuekin koordinatuta, elkarrizketei heltzeko metodologiak identifikatzeko.

1.2. Eremu estrategikoak

Hainbat agenteren arteko hausnarketa eta lanerako guneak dira eremu estrategikoak, agente horiek giza garapen jasangarriko erronka globalei modu koherente eta koordinatuan heltzeko aukera izan dezaten sortuak. Esperientzia horren bitartez, zeina bi AUZO(LAN)KIDEAK saioaren bidez bultzatu baikenuen, lan egiteko modu berriak arakatzeko ari gara.

1.2.1. AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazken eraldaketa eta bakegintza

2021ean, Caucako Iparraldeko Etniartereko eta Kulturartereko Lurralde Kontseiluari lagundu genion. Erakundeak eta Kontseilua osasunaren, ekonomiaren, memoriaren, antolaketaren, komunikazioaren eta giza eskubideen arloetan indartzeko xedatutako ildoetan laguntzen jarraitu genuen.

Urtean zehar, AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN-Kolonia Mahaiaren bi saio egin genituen, Latinoamerikako herrialdeko egoerari eta entitate bazkideek egiten duten lanari jarraipena emateko.

Caucako iparraldeko erakunde indigenen, afrokolonbiarren eta nekazarien prestakuntzarako eta eragin politikorako proiektu baten esparruan, Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenera Buruzko Ikasketa Institutuak bultzatuta eta eLankidetzak babestuta, Euskadiraiko bi misio egin ziren azken hiru hilabeteetan. Aukera horri esker, Kolonia Mahaiako askotariko eragileek lurralde-garapenerari eta giza eskubideen defentsari buruzko ikaskuntzak trukatu zituzten ordezkaritzarekin.

2021ean, Kolonbiako indarkeria areagotu egin zen eta lekualdaketek, jazarpenek eta lider sozialen hilketek iraun zuten. Ildo horretan, azpimarratzekoa da AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN-Kolonia Mahaitik egin genuen [baterako jarrera-hartzea](#) Sandra Liliana Peña Choqué gobernadore indigenaren hilketa dela eta.



Era berean, Afrikako bakegintzaren esparruan elkarrizketa bati hasiera emateko oinarriak finkatze aldera, Aintzira Handietako eskualdean bi ekimen babestu genituen Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles eta Dialogue Advisory Group erakundeekin, eta beste bat Sudanen Mujeres por África Fundazioarekin [-ikusi 1.3.4. apartatua-](#).

1.2.2. AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa

2021ean, zuzeneko dirulaguntzen bitartez, ekimen hauek babestu genituen: REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak Latinoamerikaren eta Euskadiren arteko ekonomia sozial eta solidarioko zirkuituak indartzeko antolatutakoa eta Mondragon Unibertsitatea Enpresagintzak enpresa digitaletan kooperatibismoa sustatzeko gauzatutakoa. Biek lagundu dezakete eremu estrategiko hori garatzen, Iparraren eta Hegoaren artean modu kolektiboan eraikitako metodologia eta tresna berritzaileetatik abiatuta.

Ekimen horiez gain, eLankidetzako zuzendariak plataforma kooperatiboen partzuergoaren urteko konferentzian, *Forging the Cooperative Digital Economy* izenburukoan, parte hartu zuen, Berlinen. Bere partaidetzan, garapenerako lankidetzari eta eremu digitaletan diharduten kooperatiben sustapen-lanari buruzko gogoetak partekatu zituen.



7 Ekimen batzuetan ez da kontuan hartu dirulaguntzaren zenbateko osoa, espeziifikoki babestera bideratutako zatia baizik. Ikus xehetasunak mapan.

1.3. Giza eskubideak

1.3.1. Emandako funtsen % 4 giza eskubideen defendatzaileak babesteko erreserbatzea

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Onartutako babes-ekimenen kopurua	Babeserako emandako zenbatekoa	Babeserako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K1	53	26.046.709,16 €	9	2.772.677,40 €	% 10,65
ZUZ	23	4.359.386,00 €	2	310.000,00 €	% 7,11
IZE	10	1.570.460,80 €	1	70.000,00 €	% 4,46
Beste tresna batzuk	69	16.623.226,41 €	-	-	-
GUZTIRA	155	48.599.782,37 €	12	3.152.677,40 €	% 6,49

2021ean, pertsonak, erakundeak, erkidegoak eta giza eskubideen sare defendatzaileak babesteko emandako funtsak emandako funtsen % 6,49 izan ziren⁷.

Dirulaguntza nominatibo baten bidez, Eusko Jaurlaritzaren *Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa* batera finantzatzen lagundu genion CEAR Euskadiri [-ikusi 1.3.2. apartatua-](#). Gainera, zuzeneko dirulaguntzen bidez, IM-Defensoras-Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos ekimenari laguntza eman genion COVID-19aren testuinguruan giza eskubideen defendatzaileentzako babes integral feminista sendotzeko, baita Nazioarteko Bake Brigadei ere, Mexikoko, Guatemalako, Hondurasko, Kolonbiako eta Kenyako defendatzaileen, komunitateen, erakundeen eta mugimendu sozialen langunea babesteko.

12

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ **3,1** €
MILIOI
EMAN ZIREN

Giza eskubideen defendatzaileen babesa

GUATEMALA

Emakume eta gazteak ongi bizitzeko prozesu komunitarioak sendotzeko bidean.

▷ **86.220,54 €** - PRO K1 (*)

Babes integrala giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona, erakunde eta komunitateentzat.

▷ **527.061,80 €** - PRO K1

Giza Eskubideen defentsa sustatzea, komunikatzaile komunitarioak eta Maya Mam herriaren defendatzaileak indartuz.

▷ **215.371,55 €** - PRO K1 (*)

EL SALVADOR

Giza eskubideen defendatzaile diren emakume eta LGTBI pertsonak babestuz, sustatuz eta indartuz.

▷ **490.845,90 €** - PRO K1

Adierazpen-askatasuna urratzen den testuinguru batean komunikatzeko eskubidea bultzatuz.

▷ **149.835,46 €** - PRO K1 (*)

EL SALVADOR, GUATEMALA, HONDURAS, MEXIKO ETA NIKARAGUA

Babes integral feminista Mesoamerikako giza eskubideen emakume defendatzaileentzat, COVID-19aren testuinguruan.

▷ **160.000,00 €** - ZUZ

KOLONBIA

Antioquian giza eskubideak, lurraldea eta bakea defendatzen dutenak babesteko bermeak.

▷ **120.301,22 €** - PRO K1 (*)

HONDURAS

Lurra arriskurik gabe lantzea: nekazari-komunitateek beren gaitasunak indartzen dituzte lurrraren eta lurraldearen defentsa kolektiborako.

▷ **496.066,34 €** - PRO K1

SENEGAL

La Via Campesinaren antolatzeke, parte hartzeko, mobilizatzeke eta kabildeorako gaitasunak indartzea, nekazarien eskubideak defendatu eta sustatzeko bidean.

▷ **532.211,53 €** - PRO K1

EKUADOR

Emakume defendatzaileak eta erresistentzia-prozesuak indartuz, babes integrala lortzeko bidean.

▷ **154.763,06 €** - PRO K1 (*)

EUSKADI

Eusko Jaurlaritzaren Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa indartzea.

▷ **70.000,00 €** - IZE

KOLONBIA, GUATEMALA, HONDURAS, KENYA ETA MEXIKO

Nazioarteko komunitatearen eragin politikoa sustatzea, giza eskubideen defendatzaileak babesteko.

▷ **150.000,00 €** - ZUZ

(*) Zifra horrek aditzera ematen du dirulaguntzatik zenbat bideratzen den giza eskubideen defendatzaileak babestera. Hau da, ez da dirulaguntzaren guztizkoa.



% 4,76

Nazioartekoa

Ekimen 1
150.000,00 €

% 2,22

Euskadi

Ekimen 1
70.000,00 €

% 8,72


**Hego
Amerika**

2 ekimen
275.064,28 €

% 16,88

Afrika

Ekimen 1
532.211,53 €



BABESA
GUZTIRA 3.152.677,40 €

% 67,42

**Ertamerika,
Mexiko eta Karibe**

7 ekimen
2.125.401,59 €

1.3.2. Eusko Jaurlaritzaren Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa

Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programaren hamargarren urteurrena ospatzeko, urrian, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekin eta CEAR Euskadirekin batera, ekimen horren balioa azpimarratzeko zenbait jarduera antolatu genituen. Ekintzek, nagusiki, programak lagundutako defendatzaileen borrokak, erresistentziak eta ametsak aintzatesteko balio izan zuten. Espiritu berarekin, ospakizun-ekitaldian estreina-tutako [bideo bat](#) egin zen.

Programan hamar urteetan hartutako pertsonak izan ziren jardueretan, baita Mary Lawlor ere, Nazio Batuetako giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko Errelatore Berezia. Errelatoreak aitortu zuen eragile instituzional, politiko eta sozialen antolaketa programaren elementu bereizgarria dela.

2021ean, Guatemalako eta Kolonbiako bi defendatzaile hartu ziren sei hilabetez, eta, aurreko urtean bezala, osasun-krisiaren ondorioz, ez zen egin hartutako pertsonen jatorriko herrialdeetarako jarraipen-misiorik.

1.3.3. Herri indigenekin batera egindako lanari buruzko hausnarketa

Herri indigenen egoerari eta euskal lankidetzak emandako laguntzari buruz hausnartzeko, abenduan bilera bat egin genuen erakunde eta herri indigenei laguntzen dieten euskal lankidetzak-eragile sozial eta akademikoekin. Gune horren helburua da jatorrizko herrien egoerari buruz hausnartzea, baterako analisiak egitea, ekintza-ildoak partekatzea eta lan-ildoak arakatzea. Denboraren poderioz finkatuko dela espero dugu.



Bilera hori jarraipena emateko planteatu zen 16/2021 Legez besteko Proposamenari, zeina herri indigenen errealitateari eta haien eskubideen egoerari buruzkoa baitzen eta 2021eko martxoaren 3an onetsi baitzuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak, baita eLankidetzak eremu horretan egindako ekarpenari buruz hausnartzeko grinari erantzuteko ere.



1.3.4. Trantsizioko eta bakegintzako justizia-prozesuen bultzada

2021ean, trantsizioko eta bakegintzako justizia-prozesuekin lotutako zuzeneko sei dirulaguntza eman genituen.⁸

Bi ekimen Guatemalan garatzen dira. Batak barne-gatazka armatuan izandako desagerekin behartuko kasuak argitzeko aurrera egitea du xede. Horretarako, Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoretzari eta Auzitegi Antropologiako Fundazioari laguntzen diegu. Bigarren ekimenak, Nazio Batuen Garapenerako Programaren bidezkoak, gaitasun instituzionalak indartzea eta Polizia Nazionalaren antzinako Artxibo Historikoaren dokumentu-funtsaren balioa azpimarratzea du helburu –[ikusi 1.1.4. apartatua](#)–.

Kolonbian, Javeriana Unibertsitate Pontifikaleko Kulturarteko Ikasketen Institutuari lagundu genion biktimen eta eragile sozial eta instituzionalen arteko lurralde-bakegintzari egindako ekarpenean, Egia argitzeko, Bizikidetzarako eta Berriz ez gertatzeko Batzordeari laguntza emanez –[ikusi 1.1.4. apartatua](#)–.

Era berean, Synergie des femmes pour les victimes de violences sexuelles izeneko Afrikako erakundeari laguntza eman genion emakumeek bakean eta segurtasunean duten partaidetza indartzeko, Aintzira Handietan (Burundi, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Ruanda eta Uganda) landako gizonak emakumeen eskubideen errespetuan eta sustapenean inplikatu. Eta Mujeres por África fundazioari ere eman genion laguntza, Sudanen *Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna Agendaren* ezarketa bultzatzeko, herrialdearen egonkortze-prozesuan emakumeen partaidetza sustatuz.

Azkenik, Dialogue Advisory Group erakundearekin elkarlanean aritu ginen, Aintzira Handietan, Mozambiken, Venezuelan eta Sri Lankan gobernuaren, oposizioaren, talde armatuen eta nazioarteko erakundearen arteko elkarrizketa errazteko.

⁸ 1/2007 Legean ezarritako xedapenen arabera, lau jarduketa-ildoetan babestu genituen ekimenak zuzeneko dirulaguntzen bitartez. Jarduketa horiek eLankidetzaren IV. Gida Planean markatuta daude.





1.4. Generoa

1.4.1. Emandako funtsen % 20 emakumeak ahalduntzeko eta % 10 erakunde feministentzako erreserbatzea

2021ean, emandako funtsen % 20,48 emakumeak ahalduntzeko ekimenetarako izan ziren. Hegoko erakunde feministentzat bideratutako funtsen ehunekoari dagokionez, emandako funtsen guztizkoaren % 18,14ra iritsi ginen.

Ahalduntze-ekimenetara xedatutako ehunekoak behera egin zuen aurreko urteetakoekin alderatuta, bi arrazoiengatik nagusiki: batetik, ehuneko txikiagoa zuzendu genuen proiektu-deialdira –funts banagarrien guztizkoari dagokionez–, non ahalduntze-ekintza gehien egon diren historikoki; eta, bestetik, sektore horretan ekimen gutxiago esleitu ziren.

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	AHALDUNTZEA			HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK		
			Emakumeak ahalduntzeko onartutako ekimen kopurua	Emakumeak ahalduntzeko emandako zenbatekoa	Ahalduntzeko funtsak, emandako funtsen aldean	Tokiko bazkideak diren erakunde feministekiko ekimen kopurua	Tokiko bazkideak diren erakunde feministentzat emandako zenbatekoa	Erakunde feministentzako funtsak, orokorrean emandako funtsen aldean
PRO K1	53	26.046.709,16 €	15	7.730.399,37 €	% 29,68	17	7.812.020,12 €	% 29,99
PRO K2	4	1.200.000,00 €	-	-	-	1	72.014,42 €	% 6,00
PRO K3	20	4.753.290,84 €	3	628.103,82 €	% 13,21	-	-	-
PRE	31	6.064.044,61 €	-	-	-	2	232.045,00 €	% 3,83
EHE	6	4.371.910,78 €	1	797.076,96 €	% 18,23	2	210.776,83 €	% 4,82
ZUZ	23	4.359.386,00 €	4	800.000,00 €	% 18,35	2	480.000,00 €	% 11,01
SAR	1	15.500,00 €	-	-	-	1	7.750,00 €	% 50,00
Beste tresna batzuk	17	1.788.940,98 €	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	155	48.599.782,37 €	23	9.955.580,15 €	% 20,48	25	8.814.606,37 €	% 18,14



Emakumeen ahalduntzea eta erakunde feministak (3/1)

23

EKIMEN
AHALDUNTZERAKO
ONARTU ZIREN

+ 9,9 MILIOI €

AHALDUNTZERAKO
EMAN ZIREN


25

EKIMEN
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
ONARTU ZIREN

+ 8,8 MILIOI €

HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
EMAN ZIREN

- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
- HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK



EL SALVADOR, GUATEMALA, HONDURAS, MEXIKO ETA NIKARAGUA

Babes integral feminista Mesoamerikako giza eskubideen emakume defendatzaileentzat, COVID-19aren testuinguruan.

▷ 160.000,00 € - ZUZ - IM-Defensoras ●●

HONDURAS

Antolatutako emakumeek sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak defendatzen dituzte.

▷ 450.852,48 € - PRO K1- Centro de Derechos de Mujeres ●●

NIKARAGUA

Emakumeen lidergo komunitarioa indartuz landako eta berdintasunezko garapenean eta garapen jasagarrian.

▷ 599.084,13 € - PRO K1 - Xochilt Acatl ●●

Ignacio Ellacuría Saria 2021.

▷ 7.750,00 € - SAR - Articulación Feminista de Nicaragua (*) ●●

EL SALVADOR

Emakumeak herritartasuna baliatuz: ahalduntze gehiago, emakumeen aurkako indarkeria matxista gutxiago.

▷ 447.307,71 € - PRO K1 - Las Méridas + Las Dignas ●●

COVID-19aren pandemiak bereziki kaltetutako emakume eta gazte antolatuaren gaitasunak indartzea.

▷ 561.550,54 € - PRO K1 - Colectiva feminista ●●

Feministen eta emakume gazte antolatuak, emakumeentzat indarkeriarik eta behartutako desagertzerik gabeko bizitza bat errealitate bihurtuz.

▷ 575.076,88 € - PRO K1 - ORMUSA + Asociación de Mujeres Ixchel ●●

Giza eskubideen defendatzaile diren emakume eta LGBTBI pertsonak babestea, sustatzea eta indartzea.

▷ 490.845,90 € - PRO K1 - ORMUSA ●●

Santa Isabel Ishuatán herriko emakume eta gazteak indarkeriarik gabeko bizitza osasungarri baterako eskubidearen alde.

▷ 396.466,19 € - PRO K1 - Movimiento Salvadoreño de Mujeres ●●

San Pablo Tacachico herrian ahalduntutako emakumeek beren antolatzeko, ekonomiako, eragiteko eta parte hartzeko eskubideak baliatzen dituzte beren elikadura-burujabetza indartuz.

▷ 532.330,59 € - PRO K1 ●●

(*) Hegoko erakunde feministek zuzenean kudeatutako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten du zifra horrek. Hau da, ez da dirulaguntzaren guztizkoa.

23

EKIMEN
AHALDUNTZERAKO
ONARTU ZIREN

+ 9,9 MILIOI €

AHALDUNTZERAKO
EMAN ZIREN

25


EKIMEN
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
ONARTU ZIREN

+ 8,8 MILIOI €

HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
EMAN ZIREN

- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
- HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK

Emakumeen ahalduntzea eta erakunde feministak (3/2)



PERU

Nerabe eta gazteen genero-indarkeriarik gabeko bizitza baterako eskubidea eta sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzearen aldeko estrategia feminista komunitarioak sortzea.

▷ 372.912,00 € - PRO K1 - Centro Flora Tristán ●

Warmikuna-tsinanepes: Junín departamentuko emakumeak indarkeriarik gabeko bizitza baterako eskubidearen alde.

▷ 279.342,36 € - PRO K1 - Centro Flora Tristán ●

Mugimendu feministaren antolaketa- eta ordezkaritza-gaitasunak indartzea, interseksionalitate, Ucayaliko emakumeen COVID-19aren ondoko berdintasunaren aldeko agenda bat garatzeko.

▷ 342.313,00 € - PRO K1 - Centro Flora Tristán ●●

Cuscon ahaldundutako landa-emakume produktore andatarrek aldatetako sortzen dituzte beren komunitateetan jasagarritasunaren eta beren eskubideen alde, eta klima- eta osasun-larrialdiaren aurrean.

▷ 574.383,37 € - PRO K1 - Centro Flora Tristán ●

Latinoamerikako sare feministak indartzea, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak defendatzeko eta horietan aurrera egiteko, osasun-krisi globaleko testuinguru batean.

▷ 556.553,88 € - PRO K1 - Movimiento Manuela Ramos ●●

Ocucaje, Pueblo Nuevo eta Los Aquijos barrutietako genero-indarkeriaren aurkako emakume-sareak.

▷ 484.214,13 € - PRO K1 - CENDIPP ●

EUSKADI

Botere-harremanak eraldatzea arrazakeriaren aurkako ikuspegi feminista eta tokiko-global batetik, emakume migratu eta arrazializatuak erdigunean jarrita.

▷ 210.403,26 € - PRO K3 ●

Afrikanen eta Euskadiren artean baterako garapen jasagarri eta feminista sustatzea.

▷ 148.650,26 € - PRO K3 ●

Emakumeak feminismoaren eta elikadura-burujabetzaren aldeko borroka eta itzaropenak eraiten.

▷ 269.050,30 € - PRO K3 ●

KOLONBIA

Chocóko emakume afro eta indigenak beren lurraldeetan indarkeriarik gabeko bizitza baketsu baterako eskubidea eskatuz.

▷ 503.979,30 € - PRO K1 - Ruta Pacífica de las Mujeres ●●

Caucako Iparraldeko lurraldean bakea eraikitzea estrategia sozioekonomiko solidarioetatik.

▷ 80.868,72 € - PRO K1 - Corporación Ensayos (*) ●

Caucako Iparraldeko emakume-erakundeen ahalduntze ekonomikoa.

▷ 72.014,42 € - PRO K2 - Corporación Ensayos (*) ●

BOLIVIA

Obispo Santistevaneko jatorrizko emakume nekazari indigena produktoreen ahalduntze pertsonala, komunitarioa, ekonomikoa eta politikoa.

▷ 524.769,60 € - PRO K1 - Subcentral de Mujeres 11 de octubre Bartolina Sisa + Central de Mujeres Bartolina Sisa ●●

(*) Hegoko erakunde feministek zuzenean kudeatutako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten du zifra horrek. Hau da, ez da dirulaguntzaren guztizkoa.

23

EKIMEN
AHALDUNTZERAKO
ONARTU ZIREN

+ 9,9 MILIOI €

AHALDUNTZERAKO
EMAN ZIREN

25

EKIMEN
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
ONARTU ZIREN

+ 8,8 MILIOI €

HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
EMAN ZIREN

- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
- HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK

Emakumeen ahalduntzea eta erakunde feministak (3/3)

SENEGAL

Kébémér departamentuko emakumeen eskubide politiko, sozial, ekonomiko eta sexual eta ugalketakoak baliatzeko bide ematea eta sustatzea.

▷ 581.579,92 € - PRO K1 ●

Emakume eta nesken indarkeriarik gabeko bizitza baterako eskubidea sustatzea.

▷ 470.818,72 € - PRO K1 ●

SUDAN

Aurrerapena emakumeen, bakearen eta segurtasunaren agendaren inplementazioan, emakumeen ahalduntze inklusiboaren bitartez.

▷ 150.000,00 € - ZUZ ●

BURUNDI, KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA, RUANDA ETA UGANDA

Emakumeek Aintzira Handietako eskualdeko bakean eta segurtasunean parte hartzearekin lotutako ebazpenen jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak indartzea.

▷ 320.000,00 € - ZUZ - Synergie des femmes ● ●

TANZANIA

Afrikako ekialdeko emakumeak ahalduntzea, eguzki-energiaren eta bizi-baliabideen inguruko gaitasunen garapenaren eta prestakuntzaren bitartez.

▷ 170.000,00 € - ZUZ ●

LIBANO

Ahalduntze-estrategiak Palestinako emakume errefuxiatuen kalteberatasuna murrizteko.

▷ 797.076,96 € - EHE ●

INDIA

Dalit eta santal emakumeen egiturak indartzea.

▷ 444.731,12 € - PRO K1 ●

Narmadako eta Suratiko adivasi emakumeen ahalduntzea beren eskubideen defentsan.

▷ 575.957,90 € - PRO K1 ●

Genero-berdintasunaren aldeko borroka ahalduntze sozial, politiko eta ekonomikoaren bitartez, ikuspegi ekofeminista batetik.

▷ 560.837,44 € - PRO K1 ●

Nire Panchayat Nire indarra 2.0: lidergo feminista eraikitzea Bihar eta Uttar Pradesh estatuetao komunitate kalteberetan.

▷ 571.499,93 € - PRO K1 - CREA ● ●

PALESTINA

Jerusalemeko ekialdeko palestinarren kalteberatasuna murriztea eta erresilientzia-gaitasuna indartzea.

▷ 96.556,83 € - EHE - The Union of Palestinian Women Committees (*) ●

Okupazioaren mendeko palestinarren eskubideen eta duintasunaren babes integralerako estrategia, genero-berdintasunari, haurren babesari eta hondamendi-arriskua murrizteari arreta berezia eskainiz.

▷ 114.220,00 € - EHE - Psycho Social Counseling Center for Women (*) ●

Okupazioaren mendeko palestinarren eskubideen eta duintasunaren babes integralerako estrategia, Zisjordaniako Salfit hirian genero-berdintasunari, haurren babesari eta hondamendi-arriskua murrizteari arreta berezia eskainiz.

▷ 32.045,00 € - PRE - Psycho Social Counseling Center for Women (*) ●

Osasun mentaleko sistema eta babes eta erantzun komunitarioko babes psikosoziala indartzea giza eskubideen urraketen aurrean, Gazako zerrendan.

▷ 200.000,00 € - PRE - The Union of Palestinian Women Committees ●



(*) Hegoko erakunde feministek zuzenean kudeatutako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten du zifra horrek. Hau da, ez da dirulaguntzaren guztizkoa.



1.4.2. Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu aldaketarako prozesuak bultzatzea euskal GGKEetan

Lankidetzaren erakundeentzako laguntzak, sustatzeko genero-berdintasunaren aldeko antolamendu aldaketarako prozesuak

2021ean zazpi laguntza eman genituen, 218.480,18 euroko balioarekin, garapenerako lankidetzaren euskal erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu aldaketarako prozesuak sustatzearren. Erakundeek prestakuntzarako eta esperientzia-trukerako ekintzak burutuko dituzte antzeko prozesuak eta sistematizazioak egin dituzten Euskadiko eta Hegoko erakundeen artean. Prestakuntza-ekintzen artean, honako hauek gailentzen dira:

- › Erabakiak hartzeko guneak kudeatzeko tresnak.
- › Boterearen erabilera, lidergo eraldatzailea, militantziak eta entitate bizigarriak.
- › Feminismo subalterno eta dekolonialak.
- › Interseksionalitatea, sexu-aniztasuna eta genero-aniztasuna.
- › Komunikazio feminista.
- › Maskulinitasunak.

Erakunde barruko generoari buruzko V. Jardunaldiak: Lankidetzaren feminizarantz

Lankidetzaren feminizarantz izenburupean, *Erakunde barruko generoari buruzko VI. jardunaldiak* garatu genituen, Euskadiko GGKE-en Koordinatzailearekin batera. Lankidetzaren feministak helburu handinahiagoak planteatzen ditu eta genero-ikuspegia eta estrategia duala baino begirada zabalagoa eta inklusiboagoa edukitzea eskatzen du. Topaketarako eta prestakuntzarako gune horretan, askotariko eragileek, GGKEak barne, hainbat eremutan praktikan egindako urratsen berri izan genuen.

Saioan 29 erakundetako 40 pertsonak hartu zuten parte (eta horietatik 9 gizonak ziren).

1.4.3. Prestakuntza sexu- eta genero-aniztasunean

Urteko azken hiruhilekoan, lau saioko onlineko **prestakuntza bat** gauzatu genuen sexu-aniztasunari eta genero-aniztasunari buruzko ezagutzan sakontzeko eta askotariko eragileen arteko trukerako eta ikaskuntzarako guneak sortzeko. Horretarako, ALDARTE LGTBI+ Arreta eta Dokumentazio Zentroaren eta INCYDE Lankidetzaren eta Garapenerako Ekimenak kooperatibaren laguntza jaso genuen.

Sexu-aniztasunari eta genero-aniztasunari buruzko sarrerako lehen lantegiaren ondoren, araugintzaz kanpoko lankidetzaren eraldatzailearen ikuspegian barneratu ginen. Gainera, beste eragile batzuk jada egiten ari ziren prozesuetatik abiatuta, Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduak (MST) antolaketa-mailan izandako esperientzia, SETEM Hegoa Haizeak gizarte-eraldaketarako hezkuntzan izandako esperientziak eta Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzarenak partekatu genituen, baita medicumundi Bizkaia eta Mugen Gainetik erakundearen lankidetzaren proiektuenak ere.

Jardunaldietan 79 pertsonak eman zuten izena (62 emakumek, 13 gizonak, heterosexual zisgenero 1ek, 2 ez-binariok eta queer 1ek), eta 4 saioetan, batez beste, 40 inguruk hartu zuten parte.

Proiektuetan sexu-aniztasunarekin eta genero-aniztasunarekin lotutako jardunbideak hobetzeko arrastoak

- › **Interseksionalitate-ikuspegia** txertatu.
- › Ez ikuspegi hori ez LGTBI+ erakundeak **ez instrumentalizatu**.
- › LGTBI+ kolektiboak aurre egiten dion **errealitatea** ezagutu.
- › Sexu-aniztasuna eta genero-aniztasuna **mota guztietako proiektuetan txertatu**, ez LGTBI+ kolektiboaren alde borrokatzen direnetan bakarrik.
- › **Bizipen pertsonal** eta hurbiletatik abiatu.
- › Plangintzari eta zenbait tresnari, erakunde-kultura barne, **denbora eta baliabideak eskaini** eta **barne hartu**.

1.5. Afrika

1.5.1. Emandako funtsen % 25 Afrikako kontinenterako erreserbatzea

2021ean, Afrikarako funtsak, emandako funts guztien % 26 izan ziren. Lehenengo aldiz, funtsen % 25 Afrikako kontinenteko ekimenera xedatzeko helburua gainditu genuen. Ekintza humanitarioko deialdietan eta zuzeneko dirulaguntzetan egin genuen ahalegina izan zen lorpenaren arrazoi nagusia -dirulaguntza-lerro horretan, funtsen % 40 baino gehiago Afrikara bideratu ziren-.

Ekintza humanitarioko tresnen deialdien bidez Afrikako kontinentean abian jartzeko xedatutako erreserba, 12 ekimenera, % 50etan gainditu zen. Bien artean, Afrikako 15 herrialdeetan betearazteko 18 ekimen (16 proiektu eta 2 estrategia) onetsi genituen.

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa	Ekimen kopurua Afrikan	Afrikan emandako zenbatekoa	Afrikarako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K1	53	26.046.709,16 €	13	6.400.000,00 €	% 24,57
PRE	31	6.064.044,61 €	16	3.094.379,21 €	% 51,03
EHE	6	4.371.910,78 €	2	1.353.664,16 €	% 30,96
ZUZ	23	4.359.386,00 €	10	1.789.413,00 €	% 41,05
Beste tresna batzuk	42	7.757.731,82 €	-	-	-
GUZTIRA	155	48.599.782,37 €	41	12.637.456,37 €	% 26,00



41

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+12,6
MILIOI €
EMAN ZIREN

Afrika (3/1)

NIGER

Erantzun humanitarioaren sarbidea eta kalitatea hobetzea genero-indarkerien inpaktua eta haurren eskubideen urraketak arintzeko Tillabéri eskualdean, barne-desplazatu eta errefuxiatuen lau asentamendutan.

▷ 200.000,00 € - PRE

Genero-berdintasuna sustatzea Madarounfa departamentuan, Maradi eskualdean.

▷ 336.235,23 € - PRO K1

SUDAN

Darfur Mendebaldeko gatazkaren ondorioz desplazatutako pertsonei erantzun humanitarioa ematea, ura, saneamendua eta higiena eskuratzeko zerbitzu-premien aurrean.

▷ 197.900,00 € - PRE

Aurrerapena emakumeen, bakearen eta segurtasunaren agendaren implementazioan, ahalduz inklusiboaren bitartez.

▷ 150.000,00 € - ZUZ

NIGERIA

Kamerungo errefuxiatuen eskura kalitatezko osasun-zerbitzuak jartzea eta babestea.

▷ 194.954,00 € - PRE

HEGO SUDAN


Laguntza integrala talde eta indar armatuetatik askatutako neska-mutilentzat.

▷ 200.000,00 € - PRE

MALAWI

Dzaleka errefuxiatuen esparruaren inguruneke lehen mailako eskoletan Internetekin konektatzeko bidea erraztea.

▷ 300.000,00 € - ZUZ



TXAD

Sudango errefuxiatuentzako babesa eta kalitatezko osasun-zerbitzueta-rako sarbidea.

▷ 194.954,00 € - PRE

ETIOPIA

Neska-mutilen eta emakume haurdun eta bular-emaile errefuxiatuen nutrizio-kondizioak hobetzea.

▷ 194.954,00 € - PRE

Somaliako emakumeen eskubideak eta erresilientzia garatzea klima-aldaketaren aurrean.

▷ 567.783,65 € - PRO K1

UGANDA

Arreta integrala, Bidi Bidiko errefuxiatuen asentamenduan, generoan oinarritutako indarkeriatik bizirik atera direnen premiei erantzuna emateko eta prebentzioa sustatzeko.

▷ 200.000,00 € - PRE

BURUNDI

Mpore Mwana: kalteberatasun-egoeretan dauden neskatilentzako prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea.

▷ 577.446,43 € - PRO K1

TANZANIA

Desgaitasuna duten haurren eskola-inklusihoa hobetzea, komunitate-sarea indartzea eta akonpainamendu psikosoziala Nduta eta Nyarugusu errefuxiatuentzako esparruetan.

▷ 200.000,00 € - PRE

Afrikako ekialdeko emakumeak ahalduz, eguzki-energiaren eta bizi-baliabideen inguruko gaitasunen garapenaren eta prestakuntzaren bitartez.

▷ 170.000,00 € - ZUZ

41

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ **12,6** €
MILIOI
EMAN ZIREN

Afrika (3/2)

SEAD

Bojadorren etxeko hondakinak botatzeko eta biltzeko sistema erdi selektibo bat implementatzea.

▷ 553.664,16 € - EHE

Gazteen nutrizio-baldintzak hobetzea Saharako errefuxiatu-esparruen bigarren hezkuntzako eta prestakuntza pedagogikoko zentroetan.

▷ 200.000,00 € - PRE

Ingurumen-osasuneko zerbitzuak hobetzea Saharako errefuxiatu-esparruetan.

▷ 194.650,15 € - PRE

Eskola-gosariaren programa, haurrentzako nutrizio-babesa bermatuz Saharako errefuxiatu-esparruetan.

▷ 200.000,00 € - PRE

MAURITANIA

Noadhiboun ama eta haurren desnutrizioa murriztea.

▷ 210.227,00 € - ZUZ

SENEGAL

Komunikazio komunitarioa, Gandioleko berdintasunezko garapen endogeno eta jasangarria-ekin konprometitutako herritarrak osatzeko bidean.

▷ 433.181,60 € - PRO K1

La Via Campesinaren antolatzeke, parte hartzeke, mobilizatzeko eta kabildeorako gaitasunak indartzea, nekazarien eskubideak defendatu eta sustatzeko bidean.

▷ 532.211,53 € - PRO K1

Kébémér departamentuko emakumeen eskubide politiko, sozial, ekonomiko eta sexual eta ugalketakoak baliatzeko bide ematea eta sustatzea.

▷ 581.579,92 € - PRO K1

Emakume eta nesken indarkeriarik gabeko bizitza baterako eskubidea sustatzea.

▷ 470.818,72 € - PRO K1

Dakarren eta Saint Louisen klima-arriskuaren gobernantza eta erresilientzia hobetzea.

▷ 200.000,00 € - ZUZ



MALI

Mopti eta Segou eskualdeetan krisi humanitarioek kaltetutako haurrei kalitatezko hezkuntza seguru bat bermatzea.

▷ 200.000,00 € - PRE

Koulikoroko Zirkuluko hamar landa-komunitateko emakume produktoreen autonomia ekonomikorako eskubidea sustatzea.

▷ 353.228,18 € - PRO K1

BENIN, BURKINA FASO ETA SENEGAL

Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainarekin lotutako jarduerak egitea.

▷ 194.000,00 € - ZUZ

SOMALIA

Kalteberatasun-egoeran dauden nerabe eta gazteen gaitasun ekonomiko eta sozialak hobetzea, UPSHIT ahalduntze, ekintzaitelza eta berrikuntza sozialeko programaren bitartez.

▷ 589.794,28 € - PRO K1

KENYA ETA SENEGAL

Africa Basque Challenge: landa-testuinguruetan osasunaren giza eskubideari lotutako ekintzaitelza sozialeko ekimenak indartzea.

▷ 90.186,00 € - ZUZ

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

Osasun-sistema publikoa indartzea, Kivu Iparraldean indarkeriarik gabeko bizitza eta osasuna izateko eskubidea baliatzeko aukera ziurtatuko duten erantzun integralak emateko.

▷ 200.000,00 € - PRE

Laguntza humanitarioa eta babesa, Kivu Hegoaldeko Fizi lurraldean COVID-19aren testuinguruak eta hondamendiak kaltetutako Burundiko errefuxiatuen bizi-baliabideak berrezartzeko.

▷ 118.075,37 € - PRE

Mbuji-Mayi hiriko lau auzotan muturreko kalteberatasuneko egoeran bizi diren neska eta emakumeen indarkeria matxistari gabeko bizitza baterako eskubidearen alde.

▷ 185.277,14 € - PRO K1

41

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+12,6
MILIOI €
EMAN ZIREN

Afrika (3/3)

GINEA BISSAU

Oio eta Bijagòs eskualdeetako eskola eta komunitateetan, ura, saneamendua eta higieina izateko sarbidea bermatzea, energia berriztagarrien eta haur eta komunitateen parte hartzearen bitartez.

▷ 574.047,02 € - PRO K1

BOLI KOSTA

Berdintasunezko haur-hezkuntza inklusiborako eskubidea sustatzea, komunitateen —eta bereziki emakumeen— parte-hartzea eta eskola-ingurune jasangarrien sorkuntza sustatuz.

▷ 600.000,00 € - PRO K1

Bas-Sassandra barrutiko emakume arrantzaleak kooperatibismoaren bitartez ahaldunduta, arrantza jasangarria sustatuz eta atzerriko arrasteontzien legez kontrako arrantzaren aurkako eraginaren buruan.

▷ 598.396,30 € - PRO K1


KAMERUN

Yaundé eta Duala hirietako barne-desplazatu erantzun humanitario integrala hobetzea, neska eta emakumei arreta berezia eskainiz.

▷ 200.000,00 € - PRE

Desplazatutako 803 neskaren eta 712 mutikoren harrerako komunitateen eta haurren familien erresilientzia-gaitasuna babestea Bamendako Pias eskoletan.

▷ 198.891,69 € - PRE



BURUNDI, KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA, RUANDA ETA UGANDA

Emakumeek Aintzira Handietako eskualdean bakean eta segurtasunean parte hartzearekin lotutako ebazpenen jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak indartzea.

▷ 320.000,00 € - ZUZ

KENYA, KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA ETA UGANDA

Eskualde-estrategia Kongoko Errepublika Demokratikoaren krisi humanitarioak kaltetutako herritarren osasun publikoko egoera kritikoan arretarako, generoan oinarritutako sexu-indarkeria barne.

▷ 800.000,00 € - EHE

KENYA

Nazioarteko komunitatearen eragin politikoa sustatzea, giza eskubideen defendatzaileak babesteko.

▷ 30.000,00 € - ZUZ (*)

AINTZIRA HANDIAK ETA MOZAMBIKE

Elkarriketa politikoa, indarkeria murriztea eta gatazka prebenitzea, COVID-19aren testuinguruari arreta berezia eskainiz.

▷ 125.000,00 € - ZUZ (*)

(*) Afrika jomugan duen dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten du zifra horrek. Hau da, ez da dirulaguntzaren guztizkoa.



1.5.2. Afrikan eta Afrikako agenteekin ekimen eta ekintza esanguratsuak sustatzea

1.2.1. apartatua AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN saioei buruz azaldutakoaz gain, 2021ean AUZO(LAN)KIDEAK ekimen esanguratsu hauek bultzatu genituen Afrikarekin lotuta.

AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN

2021ean, amaitu zen 2018an hasitako *Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainako* lurralde-taldeei Euskadin, Beninen, Burkina Fason eta Senegalen laguntzeko ekimena, eta kanpainarekiko gure lankidetzaren berritu genuen, zuzeneko dirulaguntza baten bidez. Lankidetzaren horren ondorioz, maiatzean onlineko jardunaldi batzuk egin ziren eta, horiei esker, Afrikako eta gure ingurunekeko erreferentziako hezkuntza-ekimenei buruzko **ikerketa** batzuk aurkeztu ziren.

Era berean, *Connect my school* programa babestu genuen berriz ere. UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtzaren programa bat da, mundu osoko hezkuntza-eragileen arteko baterako lana sustatzen duena. Zehatz-mehatz, Euskadiko eta Malawiko lehen hezkuntzako eskolen arteko truke-ekimen bat garatzen lagundu genuen, teknologia berririk eta ikuspegi inklusiboa erabiliz.

AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN

eLankidetzaren babesarekin, ekainean truke-jardunaldi batzuk egin ziren, zeinetan In-ades-Formationek ikerketa bat aurkeztu baitzuen Afrikako zenbait herrialdetan klima-aldaketara egokitzeko eta landa-gobernantza inklusiboa ezartzeko izandako 50 esperientziari buruz. Trukerako gune interesgarria izan zen eta ingurumen-ikuspegi gehiago sakontzea ahalbidetu zuen. Aurrez aurrekoa izatea aurreikusita zegoen arren, COVID-19aren ondorioz, ekitaldia online egin zen eta **esperientzia** batzuk bistaratu ziren.

AUZO(LAN)KIDEAK horretan parte hartu zuen beste proiektu bat honako hau izan zen: BC3 Basque Centre for Climate Change-Klima Aldaketa Ikergaik Dakarren eta Saint Louisen (Senegal) egindako lana. Bi hirietan urak igoz gero sortuko lirakeen ondorioetara egokitzeko gobernanta-proiektu bat da. Ekimenak eragile senegaldarren prestakuntzarako eta trukerako guneak ere sustatu ditu urtean zehar. 2021ean, prozesuarekin jarraitzeko zuzeneko beste dirulaguntza bat zehaztu dugu.

AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN

eLankidetzatik Afrikan teknologia egokiak garatzeko ekintzak bultzatu nahi ditugu. Hala, 2021ean, teknologia pertsonen garapen jasangarriaren mesedetan erabiltzearekin lotuta bi ekimen zehaztu genituen.



Lehenengoa SIC4CHANGE eta Rosa del Desierto entitateen ekimen pilotu bat da, Nuadibun (Mauritania) ama eta haurren desnutrizioa deuseztatzen laguntzeko sortua. Proiektua blockchain teknologian eta osasunaren arloko eragile komunitarioen sare baten lanean bermatzen da.

Bigarren ekimena Friends of Barefoot College erakundeak egiten du. Zanzibarren eta Tanzanian emakumeen ahalduntzeari eta eguzki-energiaren eta bizitzeko baliabideen inguruko gaitasunen garapenari laguntzen dien proiektua da. Erakundeak emakumeentzako trebakuntzak gauzatzen ditu eguzki-ingeniari bihur daitezzen eta beren komunitateetan eguzki-teknologiaren erabilera susta dezaten.

1.5.3. Afrikako errealitateen ezagutza eta esperientziak trukatzeko ekimenak

Africa Basque Challenge

Zuzeneko dirulaguntza berri baten bidez, *Africa Basque Challenge* programaren hirugarren edizioa babestu genuen. Haren helburua da Kenyan eta Senegalen landa-testuinguruetarako ekintzailatza-ekimen sozialak garatzea, osasunerako giza eskubidea sustatzea eta arretarik jasotzen ez duten gaixotasun tropikalei eragiten dieten baldintzatzaile sozialak hobetzea.

2021ean, programaren bultzatzaileak, Mondragon Unibertsitatea Enpresagintzak ez ezik, Anesvad Fundazioak ere bat egin zuen ekimenarekin. Osasun-zerbitzu publikoetarako bizidako sarbidea hobetzeko proposamenak bilatu ziren eta lehenengo eta bigarren edizioetako gazteek beren ekintzailatza sozial eta solidarioko ekimenak abian jartzea sustatu zen.

Afrikaldia

Afrikaldiaren, Afrikar Zinemaren Vitoria-Gasteizko Jaialdiaren, azken edizioarekin elkarlanean aritu ginen; bertan, 17 lan proiektatu, eta 500 pertsona inguru joan ziren.

Jaialdia Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak eta Kultura Banderata entitateak antolatzen dute eta hauek dira haren helburuak:

- › Afrikako kontinenteko aniztasuna ikusgai jartzea eta ezagutaraztea.
- › Euskal kulturaren eta kultura afrikarren arteko topaketarako guneak sortzea.
- › Bizikidetzaz zailtzen duten aurreiritziei, estereotipoei eta beldurrei aurre egitea.
- › Iritzi publikoan eragina sortzea.
- › Erreferente positiboak eskaintzea, zinemagile eta profesional afrikarrak ikusgai eginez.

Afrikako Egunaren ospakizuna

Afrikako errealitateak eta kultura-aniztasuna euskal gizartearen zabaltzen laguntzeko asmoz, migratzaile afrikarren elkarteei lagundu genien Afrikaren Egunaren inguruan, zeina maiatzaren 25ean ospatzen baita, jarduerak egin zitzaizkion.

Bilboko 7 erakundeek eta Euskadiko Diaspora Afrikarra partzuergoak, Gasteizko 14 entitatez osatuak ez ezik, lankidetzarekin edo giza eskubideen defentsarekin lotutako entitate kulturalak ere lagundu zuten eta, hain zuzen ere, Afrikako kontinentean izaten diren eskubide-urraketen berri eman zuten.



1.6. Ekintza Humanitarioa – gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk


1.6.1. Emandako funtsen % 9 gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan zentratutako ekimenetarako erreserbatzea

2021ean, gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan zentratutako ekimenetarako funtsak, emandako funts guztien % 22,30 izan ziren⁹.

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Gatazketan gauzaturako ekimenen kopurua	Gatazketan emandako zenbatekoa	Gatazketarako funtsak, emandako funtsen aldean
PRE	31	6.064.044,61 €	31	6.064.044,61 €	% 100,00
EHE	6	4.371.910,78 €	6	4.371.910,78 €	% 100,00
ZUZ	23	4.359.386,00 €	1	150.000,00 €	% 3,44
IZE	10	1.570.460,80 €	1	250.000,00 €	% 15,92
Beste tresna batzuk	85	32.233.980,18 €	-	-	-
GUZTIRA	155	48.599.782,37 €	39	10.835.955,39 €	% 22,30

eLankidetzaren apustu bat da larrialdi humanitarioei erantzutea nazioarteko deiei edo funts globalei ekarpen ekonomikoak eginez. Hala, Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak, UNRWAK, egindako larrialdiko deiarekin bat egin genuen, Gazako zerrendan hezkuntzarako sarbidea errazteko.

% 9ko erreserban zenbatzen ez den arren, urte horretan ere 200.000 euroko ekarpena egin genion Nazio Batuetako Larrialdietan Erantzuteko Funts Zentralari (CERF, ingelesezko siglengatik).



⁹ Ehuneko horrek ez du biltzen Nazio Batuetako Larrialdietan Erantzuteko Funts Zentralari emandako zuzeneko dirulaguntza, hondamendi naturalen ondoriozko zein gatazka testuinguruekin eta beste indarkeria-egoera batzuekin lotutako larrialdi humanitarioei erantzuten dielako.

39

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ **10,8** €
MILIOI
EMAN ZIREN

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk (3/1)

MEXIKO

Babes humanitarioa migrazio-ibilbidean mehatxu ugariaren eraginpean dauden emakume migratzaile, desplazatu eta errefuxiatuentzat eta harrerako emakumeentzat.

▷ 199.092,38 € - PRE

GUATEMALA

Bidean dauden migratzaileentzat laguntza humanitarioa indartzuz eta Petén departamentuan asiloa eskatuz.

▷ 170.577,20 € - PRE

COSTA RICA

Eskualde barneko migrazioa Erdialdeko Amerikan: babes humanitario integrala Nikaraguako, Hondurako eta El Salvadorreko behartutako migratzaileentzat..

▷ 200.000,00 € - PRE

KOLONBIA

Arreta humanitarioa indarkeriagatik desplazatutako Chocó departamentuko Río Valleko embera komunitate indigenen itzulera segurua ahalbidetzeko.

▷ 200.000 € - PRE

Bizitzeko babesa: Arauca departamentuan indartutako eta duin bihurtutako emakume, nerabe eta gazte migratzaileak eta harrera-komunitateetako kideak.

▷ 200.000 € - PRE

COSTA RICA, EL SALVADOR ETA NIKARAGUA

Erantzun humanitario integrala Ertamerikan, behartutako migrazioko eta nazioarteko babesekeko testuinguruetan.

▷ 798.511,26 € - EHE

LIBANO

Ahalduntze-estrategiak Palestinako emakume errefuxiatuen kalteberatasuna murrizteko.

▷ 797.076,96 € - EHE

Laguntza mediko eta psikosoziala hegoaldean errefuxiatutako herritarrentzat.

▷ 199.995,82 € - PRE

Kalitatezko osasun-arreta Saida eskualdeko Zrariah herriko jendearentzat eta errefuxiatuentzat.

▷ 200.000,00 € - PRE

PALESTINA

Haurrak babesteko neurriak indartzea, torturen eta beste tratu anker eta umiliagarrien biktima izan diren haurrei arreta berezia eskainiz.

▷ 200.000,00 € - PRE

Zisjordaniako Salfit hirian, okupazioaren mendeko palestinarren eskubideen eta duintasunaren babes integralerako estrategia, genero-berdintasunari, haurren babesari eta hondamendi-arriskua murrizteari arreta berezia eskainiz.

▷ 200.000,00 € - PRE

Oinarritzko osasunerako sarbidea, Zisjordaniako iparraldeko herri isolatuetan osasun-puntuak jarritz.

▷ 200.000,00 € - PRE

Gazako Zerrendan pobrezia-egoeran bizi diren errefuxiatu palestinarrei bizitza duin baterako eskubidea baliatzen laguntzea, laguntza humanitarioaren bitartez.

▷ 200.000,00 € - PRE

Gazako zerrendan, osasun mentaleko sistema eta babes eta erantzun komunitarioko laguntza psikosoziala indartzea, giza eskubideen urraketen aurrean.

▷ 200.000,00 € - PRE

Jerusalemeko ekialdeko palestinarren kalteberatasuna murriztea eta erresilientzia-gaitasuna indartzea.

▷ 622.658,40 € - EHE

Okupazioaren mendeko palestinarren eskubideen eta duintasunaren babes integralerako estrategia, genero-berdintasunari, haurren babesari eta hondamendi-arriskua murrizteari arreta berezia eskainiz.

▷ 800.000,00 € - EHE

UNRWako Larrialdietarako Hezkuntza Programari laguntzea.

▷ 250.000,00 € - IZE

39

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ **10,8** €
MILIOI
EMAN ZIREN

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk (3/2)

SEAD

Bojadorren etxeko hondakinak botatzeko eta biltzeko sistema erdi selektibo bat inplementatzea.

▷ **553.664,16 €** - EHE

Gazteen nutrizio-kondizioak hobetzea Saharako errefuxiatu-esparruko bigarren hezkuntzako eta prestakuntza pedagogikoko zentroetan.

▷ **200.000,00 €** - PRE

Ingurumen-osasuneko zerbitzuak hobetzea Saharako errefuxiatu-esparruetan.

▷ **194.650,15 €** - PRE

Eskola-gosarien programa, haurrentzako nutrizio-babesa bermatuz Saharako errefuxiatu-esparruetan.

▷ **200.000,00 €** - PRE

MALI

Mopti eta Segou eskualdeetan krisi humanitarioek kaltetutako haurrei kalitatezko hezkuntza seguru bat bermatzea.

▷ **200.000,00 €** - PRE

NIGER

Erantzun humanitarioaren sarbidea eta kalitatea hobetzea genero-indarkerien inpaktua eta haurren eskubideen urraketak arintzeko Tillabéri eskualdean, barne-desplazatuak eta errefuxiatuak lau asentamendutan.

▷ **200.000,00 €** - PRE

NIGERIA

Kamerungo errefuxiatuak eskura kalitatezko osasun-zerbitzuak jartzea eta babestea.

▷ **194.954,00 €** - PRE

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

Osasun-sistema publikoa indartzea, Kivu Iparraldean indarkeriarik gabeko bizitza eta osasuna izateko eskubidea baliatzeko aukera ziurtatuko duten erantzun integralak emateko.

▷ **200.000,00 €** - PRE

Laguntza humanitaria eta babesa, Kivu Hegoaldeko Fizi lurraldean COVID-19aren testuinguruak eta hondamendiak kaltetutako Burundiko errefuxiatuak bizi-baliabideak berrezartzeko.

▷ **118.075,37 €** - PRE

SIRIA

Palestinako errefuxiatuak erresilientzia eta bizi-baldintza duinak sustatzea eskudiruzko laguntzaren bitartez.

▷ **200.000,00 €** - PRE

IRAK

Ninewa eskualdean eta Irakeko Kurdistanen osasunerako eskubidea babestea, COVID-19aren krisiak areagotutako desplazamendu luzeko eta bermerik gabeko itzulerako testuinguru batean.

▷ **200.000,00 €** - PRE

SUDAN

Darfur Mendebaldeko gatazkaren ondorioz desplazatutako pertsonei erantzun humanitarioa ematea, ura, saneamendua eta higiena eskuratzeko zerbitzu-premien aurrean.

▷ **197.900,00 €** - PRE

ETIOPIA

Neska-mutilen eta emakume haurdun eta bular-emaille errefuxiatuak nutrizio-kondizioak hobetzea.

▷ **194.954,00 €** - PRE

HEGO SUDAN


Laguntza integrala talde eta indar armatuetatik askatutako neska-mutilentzat.

▷ **200.000,00 €** - PRE

UGANDA

Arreta integrala, Bidi Bidiko errefuxiatuak asentamenduan, generoan oinarritutako indarkeriatik bizirik atera direnen premiei erantzuna emateko eta prebentzioa sustatzeko.

▷ **200.000,00 €** - PRE




39

EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ **10,8** €
MILIOI
EMAN ZIREN

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk (3/3)





1.6.2. Goseak gerra-arma gisa duen eragina analizatzeko ekimena

NBEko Segurtasun Kontseiluaren 2417 Ebazpenak, goseari eta gerrari buruzkoak, 2018an lehen aldiz aitortu zuen gosea xede belikoein erabiltzen dela, eta hori lorpen garrantzitsua izan zen eremu humanitarioan. Hala ere, haren aplikazioa oraindik eskasa da, ez dagoelako frogatzeko tresnarik.

eLankidetzatik ebazpen horren aplikazio praktikoan laguntzen dugu, Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua eta Gosearen Aurkako Ekintza babestuz. Urtebete eta erdiz, bi erakundeek talde bat sortu zuten frogak dokumentatzen eta goseak gatazka-testuinguruetan duen eragina analizatzen lagunduko duen atariko metodologia bat batera diseinatuzeko.

Ekainean [Metodología de monitoreo y evaluación de inseguridad alimentaria en conflicto](#) (Gatazka-testuinguruetan elikagaien segurtasunik eza monitorizatzeko eta ebaluatzeko metodologia) aurkeztu zen erakunde humanitarioen aurrean, eta dokumentu hori gatazka armatuko testuinguru batean probatu zen.

Ekimen horri laguntzen jarraitzeko, 2021ean zuzeneko beste dirulaguntza bat zehaztu genuen Gosearen Aurkako Ekintzarekin.

1.6.3. Biztanlerien partaidetzaren eta kontu-ematearen sustapena

Otsailean, ekintza humanitarioaren subjektu den biztanleriaren partaidetzari eta biztanleei kontu-emateari buruzko azterketa bat aurkeztu genuen. Bertan, gaiari buruz nazioartean adostutako esparru teoriko nagusiak, 2018. urtetik 2020. urtera bitartean babestu genituen esku-hartzeetako jokabideen analisi bat eta ondorio eta gomendio batzuk biltzen dira. Gainera, azterketak gaztelaniazko, euskarazko, ingelesezko eta frantsesezko tresna bat dakar, erakunde humanitarioek beren jardunean partaidetzeta eta kontu-ematea hobetu ahal izan ditzaten.

Gaiaren interesa dela-eta, ekintza humanitarioko esperientziei buruzko prestakuntzarako eta trukerako hirugarren gunearen esparruan ezagutarazi genuen tresna, martxoan.

Saioan, Indiako, Ugandako, Kongoko Errepublika Demokratikoko, Kenyako, Kamerungo, Gabongo, Palestinako, Kolonbiako eta Espainiako estatuko 24 erakundetako 40 pertsonak baino gehiagok egin zuten ariketa praktikoa bat.

Partaidetzari eta kontu-emateari buruzko proiektu pilotua

Hiru hilabetez, Guatemalako, Costa Ricako, Peruko, Palestinako, Libanoko, Kongoko Errepublika Demokratikoko eta Euskadiko 21 erakunde humanitariok aplikatu zuten tresna, Fernando Almansa aholkulariaren eskutik. Gero, erakundeek pilotajeari buruzko beren iritzi eta balorazio nagusiak partekatu zituzten eta, jasotako ekarpenen ondoren, aholkulariak tresna doitu itzuli zuen.

Hona hemen tresnaren bereizgarriak:

- › **Erabilgarritasuna:** tokiko eta nazioarteko erakunde humanitarioek banaka zein modu partekatuan erabiltzeko ematen da.
- › **Diseinua:** ahalik eta erraztasun, argitasun eta aplikagarritasun handienak bilatzen ditu.
- › **Egokigarritasuna:** aplikatzeko eta erabiltzeko malgua.
- › Partaidetzan eta kontu-ematean egindako aurrerapena monitorizatzeko **gaitasuna**.
- › **Gogoetarako** eta antolaketa-ikaskuntzarako orientazioa.



[Azterketa](#)



[Tresna](#)



[Bideoa](#)

1.7. Gizarte-erlaketarako hezkuntza

1.7.1. Emandako funtsen % 13 Euskadiko ekintzarako erreserbatzea

2021ean, emandako funtsen % 13,60 Euskadin garatutako ekimenetarako izan ziren¹⁰.

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa	Euskadin gauzaturako ekimenen kopurua	Euskadin emandako zenbatekoa	Euskadirako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K3	20	4.753.290,84 €	20	4.753.290,84 €	% 100,00
GBA	7	218.480,18 €	7	218.480,18 €	% 100,00
ZUZ	23	4.359.386,00 €	5	640.066,00 €	% 14,68
IZE	10	1.570.460,80 €	7	999.800,00 €	% 63,66
Beste tresna batzuk	116	41.988.145,35 €	-	-	-
GUZTIRA	155	48.599.782,37 €	39	6.611.637,02 €	% 13,60

Proiektu-deialdiaren 3. kapituluko ekimen-moten artean, 13 prestakuntza-ekimen, 2 sentsibilizazio-proiektu, eragin politikoko 2 proiektu, ikerketako 2 eta berrikuntzako 1 egon ziren.

Proiektuetako gaiei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: giza eskubideak (4), ekonomia sozial eta solidarioa, balioetan oinarritutako hezkuntza eta emakumeen ahalduntzea (bakoitzerako 3) eta feminismoak (2). Gainerakoek ingurumena, kulturartekotasuna, bidezko merkataritza, sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak jorratzen dituzte.

1.7.2. (H)ABIAN 2030 estrategiaren inplementazioa

2021ean, (H)ABIAN 2030 gizarte eraldaketarako hezkuntzaren euskal strategiaren jarraipenerako taldeak lan bizia egin zuen strategiaren xede diren 16 aldatetarik neurtzeko adierazle-bateria bat eta abiapuntu-egoera ezagutzeko oinarritzko ildo bat prestatzeko. Proposatzen da analisi hori birritan egitea estrategia bukatu baino lehen, gure jarduketak berrorientatu eta sortutako aldatetak erakutsi ahal izateko



[Azterketa](#)



[Infografiak](#)



[Bideoa](#)

Aldaketak neurtzeko ahalegintzeaz gain, bi batzordetan lanean jarraitu zen atxikitako erakundeetara neurketak abian jartzea errazteko eta estrategia bera zabaltzeko.

(H)ABIAN 2030 strategiaren esparruan, eLankidetzaren gizarte-erlaketarako hezkuntzaren lehen ekintza-planari, *GOLDATU*ri, buruz egindako ebaluazioa analizatu genuen, hurrengo plana biribiltzeko asmoz.

¹⁰ Ehuneko horretan ez dira bildu Euskadin ekintza humanitarioko proiektuen harira egindako testigantza-, salaketa-eta eragin-ekintzarako, ezta proiektuaren tresnaen 1. eta 2. Kapituluetan Euskadin gara zitezkeen bestelako ekintzarako zenbatekoak ere.



Jarraian, 2021ean garatutako ekintza nagusiak aurkezten ditugu:

Ekintzarako prestakuntza

Azaroan, Hezkuntza Sailarekin batera, legegintzaldi honetako lehen [Heziketa Topaketa](#) egin genuen, pandemia-testuinguruetako eskolaren ingurukoa. Bertan, Euskadin, Guatemalan eta Bolivian hezkuntza emozionala ematean eta eskola bere ingurunera irekitzean izandako esperientziak aurkeztu ziren.

Topaketan, bai irakasleek bai ikasleek eta familiek pandemia-garaietan egindako ahalegina aintzatetsi zen. Ildo horretan, baliagarria izan zen eskolak edozein testuingurutan daukan zeregin garrantzitsua ikusgai egiteko, eta, topaketari esker, jada lantzen ari ziren ildoetako batzuk aitortu eta indartu ziren, hala nola eskolek beren ingurunearekin duten harremana eta hezkuntza emozionala.

Ekintza eraldatzaileak

Pandemiak eragindako osasun-egoeraren ondorioz, eta aurreko urtean bezala, 2021ean ezin izan zen antolatu *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programa. Hala ere, balioei eta gazteen lankidetzaren esperientziei buruzko sentsibilizatorako beste aukera batzuk eskaini ziren. Horrela, programaren webgunea hobetzeko aprobetxatu zen, informazio eta joko birtual gehiago erantsiz, ekimenean eskaintzen diren lankidetzaren esperientziak gazteen-gana hurbiltzeko asmoz.

Gainera, lehenengo aldiz, *Erronka globalen aurrean, gazteak martxan* sariak iragarri ziren. Ekimen horrek Euskadiko eta beste lurralde batzuetako gazteen arteko elkartasuna, garapenerako lankidetzaren eta trukea sustatzen ditu, gazteek gauzatutako proiektuen bitartez. Deialdiak *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programaren mamari eusten dio: gazteei protagonismoa ematea sentsibilizazio eta lankidetzaren ekintzetan.

Hezkuntza-erakundea

2021ean, *Mundua eskolan, eskola munduan* proposamen pedagogikoan lan egiten jarraitu genuen. Bertan, neska gazte marokoar batek eta hondurastar batek migratzeko eta gure gizartean sartzeko prozesuari buruzko lekukotzak partekatu zituzten DBHko 1. mailatik

Giza eskubideen ikuspegiaren funtsezko ikaskuntzak

- Giza eskubideen «unibertsaltasuna» zalantzan jartzea.
- **Beste kolektibo batzuen ikuspegiak** eta haien testuinguruena barne hartzea.
- Kalte egin zaien biztanleekin **prestakuntza-prozesuak** bultzatzea.
- **Narratiba** normalizatuak **zalantzan jartzea**.
- **Sarean lan egitea**.
- Geure burua **eskubideen defendatzaile gisa** aitortzea.

4. mailarainoko 13 gelatan. Guztira, 326 ikaslek (165 neskek eta 166 mutilek) eta 11 irakaslek (7 emakumek eta 5 gizonek) landu zuten elkartasunaren zentzua, 5 ikastetxetan.

Irailean, *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren IV. Jardunaldiak* izan ziren, *Giza eskubideak, guztientzako eskubide? Begirada kritiko bat hezkuntzatik* izenburupean. Bertan, gogoeta egin genuen eta giza eskubideen eta begirada kolonialaren arteko interdependentziaz jabetzera animatu gintuzten esperientziak ezagutu genituen. Jardunaldi horiek urtero antolatzen ditugu Euskadiko GGKE-en Koordinatzailearekin eta Hegoa-Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuarekin batera.



[Errelatoretza](#)



[Web-mintegia](#)

Ikaskuntza-kultura

Kontratu bat adjudikatu genuen ikus-entzunezko baliabideak egiten diren eta biztanleria oro har eta gazteak bereziki protagonistatzat dituzten hezkuntza-prozesuak ebaluatzeko. Prozesu horiek euskal entitateek bultzatu dituzte, eLankidetzak eta beste erakunde batzuek finantzaturako proiektuen bidez. Ebaluazio horren bitartez, komunikazio hezitzailea lortzeko ikaskuntzak eta gomendioak berreskuratu nahi ditugu.

1.7.3. Ignacio Ellacuría saria Nikaraguako erakunde feministentzat

Articulación Feminista de Nicaraguari eta Asociación Madres de Abril elkarteari eman genien, ex aequo, garapenerako lankidetzaren 2021eko *Ignacio Ellacuría* saria. Nikaraguako bi erakundeok emakumeen eskubideen alde eta demokrazia indartzeko borrokatzen dira.

Aldi berean, gure laguntzarekin, migratu nikaraguarren zenbait erakunde programazio berezi bat antolatu zuten, sarituen partaidetzarekin. GGKE eta elkarte feministekiko topaketak egin, herrialdearen testuinguruari buruzko mahai-inguru bat antolatu, eta *Nicaragua, patria libre para vivir* dokumentala proiektatu zen, zuzendariak, Daniel Rodríguezek, aurkeztuta.

“**Bi erakundeak aintzatetsi nahi ditugu emakumeen eta Nikaraguako herriaren eskubideen eta justiziaren aldeko borrokan egindako lanagatik, Euskadiko eta nazioarteko gizartea sentsibilizatzen laguntzeko.**

2021eko Ignacio Ellacuría sariaren epaimahaia



1.8. Jakintzaren kudeaketa

1.8.1. Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko argitalpenak

Maiatzean, [onlineko saio](#) bat antolatu genuen Ignacio Martínez ikertzailearekin, *Nuevos horizontes para la cooperación internacional. Una mirada a la cooperación descentralizada a través del caso vasco* izenburuko bere argitalpenari buruz. Lan hori egilearen doktorego-tesian oinarrituta dago eta eLankidetzaren babesarekin argitaratu zen.

Aurkezpenak sustatu zuen gunean, Ipar-Hego logika gainditzeko, garapen jasangarrirako politiken koherentziarako, maila anitzeko ekintzarako eta horrek nazioarteko lankidetzaren sistemaren hedapenari eta demokratizazioari egiten dien ekarritako planteatzen diren ekarpenez gogoeta egin genuen.

Gainera, Mariano Aguirrereren *La cooperación internacional y las protestas sociales en Colombia* txostena argitaratu genuen [-ikusi 1.1.5. apartatua-](#).

1.9. Jardun geografikoak

2021eko lehen hiruhilekoan, 7 herrialderen inguruko bilera geografikoak antolatu genituen. Euskadiko GGKEekin egindako bilera horietan, eLankidetzatik askotariko tresnen birtutez babestutako ekimenak, erakundeak gauzatzen ari diren estrategiak eta testuinguru bakoitzarekin lotutako kontu zehatzak analizatu genituen.

1.9.1. Kubarekin ekimenak sendotzeko koordinazioa

Kubako Gobernuak Kanpo Merkataritzako eta Inbertsio Atzerriarrekoko Ministerioaren eta eLankidetzaren arteko lankidetzaren arloko akordio-memorandumari jarraipena emateko, bi erakundeok hiru topaketa birtual izan genituen. Topaketetan, martxan dauden ekimenei,



proiektu-deialdiari eta Kubaren eta Euskadiren arteko harremana sendotzeko zuzeneko lankidetzako ekintzen sustapenari heldu genien.

Esparru horretan, 2021ean, La Habanako Unibertsitateko Berrikuntza eta Garapenerako Unibertsitate Fundazioaren, Tecnalia Research & Innovation Fundazioaren eta eLankidetzaren arteko hitzarmen bat sinatu genuen Kubako eta Euskadiko berrikuntza-ekosistemen arteko konexioa eta interrelazioa sustatzeko.

1.10. Komunikazioa

I. Komunikazio Planaren, 2019-2022koaren, esparruan garatutako ekintzen ondorioz, komunikabideetako agerraldien kopuruak gora egin zuten, ia hirukoiztu genuen eta. Gainera, Twitterreko jarraitzaile-kopurua bikoiztu genuen.

Komunikazio digitalari dagokionez, www.elankidetz.euskadi.eus webguneko orri bisitatuena, nagusiaren ondoren, proiektuetarako laguntzei buruzkoak izan ziren, baita eLankidetzaz egutegietarako, lankidetzari eta elkartasunari buruzko euskal lege berria jakinarazteari eta espezializazio-bekak azaltzeari eskainitakoak ere.

Era berean, ikus-entzunezko materiala sortzeko eta [YouTube](https://www.youtube.com)ko gure kanalean zabaltzeko apustuari jarraipena eman genion, helburu bikoitzarekin. Batetik, egiten ditugun ekimenak erakustea eta haien balioa azpimarratzea, eta, bestetik, prestakuntza-materialerako sarbidea erraztea. Ildo horretan, [bi bideo](#) argitaratu genituen 2021eko *Ignacio Ellacuría* saria jaso zuten bi erakunde nikaraguarrei buruz [-ikus 1.7.3. apartatua-](#) eta herritarren eskura jarri genituen urtean zehar egindako prestakuntzen, hitzaldien eta web-mintegien bideoak. Guztira, gure kanalak hiru mila bistaratze baino gehiago izan zituen.

Azpimarratzekoak dira bai irratian bai prentsan eLankidetzako zuzendariari egindako elkarrizketak, baita gurekin lankidetzan ari diren pertsona esanguratsuei egindakoak ere, haiei esker lankidetzarekin eta elkartasunarekin lotutako gaiak eta balioak hedatzea lortu baitzen. Elkarrizketok kazetarietara eta komunikabideetara gero eta harreman estua goaren emaitza izan ziren.

1.11. Arau-berrikuspenera

1.11.1. Garapenerako lankidetzari buruzko euskal legearen eguneraketa

2007an, Eusko Legebiltzarrak Garapenerako Lankidetzari buruzko Legea onetsi zuen; lege horrek legezko babesa ematen dio justizia sozialaren eta Hegoko herrien garapeneraren aldeko euskal elkartasunari. Hala ere, lankidetzaren politikak aurre egiten dien erronka globalak nabarmen aldatu dira orduz geroztik.

Legearen irismena berrikusteko eta hedatzeko helburuarekin, 2021eko urtarrilean, kontsulta eta partaidetzarako prozesu bizi bat hasi genuen. Prozesua [Informe sobre la Ley de Cooperación para el Desarrollo del País Vasco](#) txostenaren ondorio nagusien sozializazioarekin hasi zen. Hain zuzen, txostena indarreko lege-esparruaren potentzialtasunei eta mugei buruzko azterketa da, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuaren katedradun Koldo Uncetak egina.

Ondoren, erkaketa eta kontsultarako 20 gune inguru gauzatu genituen euskal administrazio publikoekin, GGKE-ekin, Euskadiko GGKE-en Koordinatzailearekin, ikaskuntza-zentro eta zentro teknologikoekin, erakunde feministekin eta LGTBI+ erakundeekin, migratuen elkarteekin, NBErekin lotutako erakundeekin eta hezkuntza-eragileekin, besteak beste.

Aldi berean, aktiboki parte hartu genuen Espainiako lankidetzaren sistemaren erreformarako gogoetarako guneetan eta arloko beste lege autonomiko batzuen erreformek sustatutako debateetan, batez ere Balearretako, Kataluniako eta Extremadurako autonomia-erkidegoekin, antzeko arau-esparruak aldatzeko prozesuetan baitaude.

Irailean, tailer bat egin genuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekin, lege berriaren eduki nagusietan sakontzeko. Halaber, azaroaren 15ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, Beatriz Artolazabalek, lege-aurreproiektua sortzeko prozedurari hasiera eman zion.

Une horretatik aurrera, eta bai lanerako guneetan bai aurretiazko kontsulta publikoaren fasean jasotako ekarpenekin, lege-aurreproiektuaren zirriborroa sortzen hasi zen. Zirriborro hori idazteko, gainera, zenbait arlotako (adibidez, garapenerako lankidetzako, administrazio-zuzenbideko, generoko eta ekonomia sozial eta solidarioko) adituen babesa eta erkaketa baliatu ziren.

“ Lege berriaren bidez, gizarte antolatu eta aktibo baten bitartez Euskadiren konpromiso solidarioa indartu, erakunde publikoek giza garapen jasangarriaren alde duten inplikazioa sendotu eta askotariko eragileak nahasi nahi dira, haien arteko aliantzak bultzatuz.

Paul Ortega Etcheverry
eLankidetzako zuzendaria

Programei buruzko dekretu berria

Programei buruzko dekretu berri bat izapidetzen jarraitu genuen. Kontsulta-prozesua hasi, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari eta Eusko Jaurlearitzako zenbait instantziari bidali genien testua, nahitaezko txostena idatz zezaten.

Tresna berriaren bereizgarri nagusia tokiko-global ikuspegia izango da. Apustua honetan datza: garapenerako lankidetzako politikak erantzun nahi dien erronka eta egiturazko arazo askok izaera globala eta tokiko konexio daukate. Horregatik, programen xedea erantzun integral eta koordinatuagoa ematea izango da eta, horretarako, gizarte-erlaldaketarako lankidetzaren eta hezkuntzaren eremuen banaketa tradizionala gaudituko dute eta horren ordez erlaldaketa-xede komunak ezarriko dituzte, Iparreko eta Hegoko eragileek modu antolatuan eta zenbait maila eta lurraldetan hel diezaieten.

1.12. Bitartekoak

Plantilla finkatzea

Taldea osatu genuen pertsona berriak sartuz. Gaur egun, 37 pertsonok osatzen dugu eLankidetzako taldea: 27 emakumek (arlotako 4 arduradunek, 16 teknikarik, 6 administrazioailek eta zuzendaritzako idazkari 1ek) eta 10 gizonek (zuzendari 1ek, 5 teknikarik eta 4 administrazioailek).

Laguntzak ematea

2021ean, 48.599.782,37 euro eman genituen laguntzatan, berrogei herrialde pobretu baino gehiagotan eskubideetarako sarbidea eta haien hornidura bermatzen laguntzeko, baita Euskadin giza garapen jasangarriaren, justiziaren eta elkartasunaren aldeko herritar kritikoak sustatzeko ere.

Ikusi datuen azterketa hurrengo kapituluan.



02

Aurrekontu-egikaritzea eta emandako funtsak

2.1. Aurrekontu-bilakaera

2021erako hasierako aurrekontua 49.387.291 euro izan ziren: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko 49.264.291 euro eta 2020. urteko uraren kanonaren % 5en bilketaren zentzutasunari zegozkion 123.000 euro. Ekitaldian zehar, eLankidetzak aurrekontu-aldaketa bat izapidetu zuen aurrekontuari kopuru hauek gehitzea eskatzeko:

- › eLankidetzaren eraikina egokitzeko aurreko urteko kapital-partidatetik betearazi gabeko 215.522 euro.
- › 2020ko ekitaldirako aurreikusitako URaren transferentzia —2019ko uraren kano-nagatiko sarreraren % 5i zegozkien 120.661 euro—, *Ertamerika-Euskadi ur eta sanea-menduaren arloko erakundearteko lankidetzeta-programatik*, ezin izan baitzen ekitaldi horretan betearazi, pandemiak eragindako osasun-krisiaren ondorioz eraikuntza-jardueretan izandako atzerapenengatik. Funts horiek 2021ean transferitu ziren, 2020ko aurrekontuaren luzapen-aldian¹¹.


“ 2021ean, guztizko aurrekontua
49.723.474 euro izan ziren. ”

¹¹ Euskal Autonomia Erkidegoaren ekitaldirako aurrekontu orokorrak 2021eko otsailaren 11n onetsi ziren Legebiltzarrean; beraz, 2021eko ekitaldia 2020ko aurrekontua luzatuta hasi zen.



2011-2021eko aurrekontu-bilakaera

URTEA	EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontua	eLankidetzaren aurrekontua	eLankidetzaren aurrekontuen zerrenda (%) / EAE
2011	10.842.547.091 €	51.006.137 €	% 0,47
2012	10.561.398.264 €	44.467.399 €	% 0,42
2013	9.837.276.024 €	32.470.630 €	% 0,33
2014	10.429.263.820 €	35.526.830 €	% 0,34
2015	10.782.663.682 €	40.026.830 €	% 0,37
2016	11.136.869.798 €	43.026.830 €	% 0,39
2017	11.513.050.603 €	45.165.872 €	% 0,39
2018	11.791.434.211 €	46.533.177 €	% 0,39
2019	12.481.366.402 €	46.968.732 €	% 0,38
2020	12.233.625.126 €	50.005.542 €	% 0,41
2021	13.618.112.690 €	49.723.474 €	% 0,37





2.2. eLankidetzaren aurrekontu-egikaritzea



> **2021eko ekitaldian, eLankidetzak aurrekontuan jasotako 49,7 milioietatik % 97,3 egikaritu zuen.**

	Aurrekontu eguneratua	Aitortutako betebeharrak	Egindako ordainketak	Egikaritutako % ¹²
Langile-gastuak	2.334.557 €	2.030.444,42 €	2.030.444,42 €	% 86,97
Funtzionamendua	1.021.486 €	499.126,50 €	499.126,50 €	% 48,86
Inbertsioak	215.522 €	40.185,27 €	40.185,27 €	% 18,65
Dirulaguntzak	46.151.909 €	45.808.940,33 €	43.179.584,18 €	% 99,26
GUZTIRA	49.723.474 €	48.378.696,52 €	45.749.340,37 €	% 97,30

Langileen partidari, desbiderapenaren arrazoia da eLankidetzako taldea handitzeko bigarren fasea ez zela gauzatu maiatzaren amaierara arte. Atzerapen horrek funtzionamendu-partidari ere eragin zion, pertsonak sartzean berandutzeak ekintza batzuk abian jartzeko unea atzeratu zuen eta (baita zegozkien gastuak ere). Era berean, funtzionamendu-partidako desbiderapenaren arrazoia da oraindik doitzen ari garena eraikin berriaren kudeaketa-gastuen zenbatespena. 2021ean, eraikinaren egokitzapenean aurrera egiten jarraitu genuen, leihoak aldatuz eta altzariak erosiz.

Dirulaguntzei dagokienez, honako hau da azpimarratzekoa: 2021eko aurrekontutik ateratako 43 milioiez gain, 2022rako aldizkatu egin genuen 2021erako aurreikusitako ordainketen betebeharrak, 2.629.356 eurokoa; hortaz, aitortutako betebeharrak 45,8 milioi eurotara igo ziren. Era berean, 2021ean, aurreko ekitaldietan aldizkatutako ordainketei zegozkien 3.936.074 euro ordaindu genituen eta 2022rako aurreikusitako ordainketei zegozkien 548.371 euro alde aurretik ordaindu ziren. Hala, 2021ean dirulaguntza-partidatik egindako ordainketen guztizkoa 47.664.029 euro izan ziren¹³.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eLankidetzaren urteko kontuak kontsulta daitezke, [hemen](#).



¹² Aurrekontu eguneratuaren aldean aitortutako betebeharrak.

¹³ Kopuru hori bat dator Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari 2021eko garapenerako laguntza ofizialaren fluxuei buruzko txostenean jakinarazitakoarekin.

2.3. Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomoen aurrekontu-egikaritzapena


eLankidetzaren bitartez bideratutako funtsez gainera, Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomo batzuek gauzatutako nazioarteko lankidetzako ekintza jakin bazuk, garapenerako laguntza ofizial gisa konputa daitezke:

Saila, ente edo erakunde autonomoa	2021eko kopurua
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	124.000 €
Hezkuntza Saila	14.038 €
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	2.344.708,98 €
Osasun Saila	9.551 €
Segurtasun Saila	11.390 €
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia - Lehendakaritza	220.000 €
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	18.000 €
IHOBE – Eusko Jaurlaritzako Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa	12.000 €
HAZI Fundazioa	11.998,07 €
GUZTIRA	2.765.686,05 €

Hemen kontsulta daitezke finantzatutako ekimen bakoitzaren xehetasunak.

2021ean Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzara bideratutako partida guztien egikaritzapen totala 51.104.467,3 eurora iritsi zen (eLankidetzaren 48.338.781,25 euro eta beste sail, ente eta erakundeen 2.765.686,05 euro).¹⁴ Eusko Jaurlaritzaren egikaritutako aurrekontu totalaren % 0,40 da hori.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-egikaritzapenaren bilakaera



¹⁴ 2.2 apartatuko betebeharrak aitortuen kopurutik, inbertsio-partidari zegozkien 40.185,27 euroak kendu ditugu, garapenerako laguntza ofizialtzat joko ez liratekeen kapital-inbertsioetarako zirelako.



2.4. eLankidetzak 2021ean emandako dirulaguntzak

Kontseilu Errektoreak, otsailaren 16an, dirulaguntza-plan estrategikoa onetsi zuen; bertan, [2021. urterako funts banagarriak](#) sartzen dira.

Dirulaguntza-tresna guztiak berreskuratzen saiatu ginen. Dena den, COVID-19aren pandemiak mundu osoan eragindako osasun-ziurgabetasunak jarraitu zuenez, erabaki genuen eLankidetzan ez iragartzea ez NBEk herrialde pobretuetan dituen bulegoetan kooperanteak prestatzeko bekak ez espezializazio-bekak.

Ildo berean, eta Gazteria Zuzendaritzarekin batera erabakita, *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programa ere bertan behera utzi zen. Dena den, balioei eta gazteen lankidetzaren esperientziei buruzko sentsibilizaziorako beste aukera batzuk eskaini ziren, hala nola *Erronka globalen aurrean, gazteak martxan* sarien lehen edizioa [-ikusi 1.7.3. apartatua-](#).

2021ean, zuzeneko dirulaguntzak bi modalitatetan zatitu ziren: batetik, nominatiboak, alegia, Eusko Legebiltzarrean lege onetsitakoak, zeinetatik gehienek erantzuten baitiete euskal gizartearen elkartasun-konpromiso historikoei; eta, bestetik, zuzeneko dirulaguntzak, hots, Gobernu Kontseiluan onartutakoak, zeinen helburua baita deialdien bidez erantzuten ez zaien lehentasun estrategikoei erantzutea.

Hala, hauek izan ziren 2021eko otsailean onetsitako funtsak:

Tresna	Emateko aurreikuspena	Emandako zenbatekoa	Egikaritze-maila	% emandako guztizkoaren gain
PRO	32.000.000,00 €	32.000.000,00 €	% 100	% 65,84
PRO K1	26.000.000,00 €	26.046.709,16 €	% 100,18	% 53,59
PRO K2	1.200.000,00 €	1.200.000,00 €	% 100,00	% 2,47
PRO K3	4.800.000,00 €	4.753.290,84 €	% 99,03	% 9,78
PRE	6.000.000,00 €	6.064.044,61 €	% 101,07	% 12,48
EHE	4.500.000,00 €	4.371.910,78 €	% 97,15	% 9,00
BEK	100.000,00 €	0,00 €	% 0,00	% 0,00
GBA	250.000,00 €	218.480,18 €	% 87,39	% 0,45
ZUZ	4.566.328,59 €	4.359.386,00 €	% 95,47	% 8,97
IZE	1.450.000,00 €	1.570.460,80 €	% 108,31	% 3,23
SAR	15.500,00 €	15.500,00 €	% 100,00	% 0,03
Dirulaguntzak, GUZTIRA	48.881.828,59 €	48.599.782,37 €	% 99,42	% 100,00



Funts banagarrien egikaritze-maila ia % 100era iritsi zen. Desbiderapen nagusia genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuetarako laguntzen (GBA) tresnan gertatu zen, plana sortzeko eta ezarketa ebaluatzeko lerro subentzionagarrietan ez zelako egon esleitutako guztizko munta emateko ekimen nahikorik. Era berean:

- › Ekintza humanitarioan, estrategia-lerroaren (EHE) gerakina, hurrengo ekimena onesteko nahikoa ez zenez, proiektuen lerroa (PRE) pasatu zen.

- › Zuzeneko dirulaguntzei (ZUZ) dagokienez, ez zen egikaritzearen % 100 lortu; izan ere, aurreikusitako ekimenetako bat ez zen zehaztu urtearen amaiera baino lehen.
- › Dirulaguntza nominatiboetan, % 100en egikaritzea gainditu zen, urtearen hasieran, aurrekontua luzatuta, 2020rako aurreikusitako nominatibo bat egikaritu zelako, 2.1. apartatuan azaldu den moduan.

Tresna	Aurkeztutako ekimenak	Emandako ekimenak	Funtsak agortu direlako onartu ez diren ekimenak	Baztertutako ekimenak	Atzera egindako ekimenak	Emandako ekimenak aurkeztutakoen aldean	Emandako ekimenak onargarrien aldean
PRO K1	130	53	50	20	7	% 40,77	% 51,46
PRO K2	8	4	0	3	1	% 50,00	% 100,00
PRO K3	48	20	25	1	2	% 41,67	% 44,44
PRE	40	31	2	7	-	% 77,50	% 93,94
EHE	11	6	3	2	-	% 54,55	% 66,67
GBA	16	7	6	3	-	% 43,75	% 53,85
ZUZ ¹⁵	23	23	-	-	-	% 100,00	% 100,00
IZE ¹⁶	10	10	-	-	-	% 100,00	% 100,00
SAR	4	1 ¹⁷	-	3	-	% 25,00	% 100,00
GUZTIRA	290	155	86	39	10	% 53,45	% 63,52

[Hemen](#) kontsulta daiteke 2021ean emandako dirulaguntzen zerrenda osoa.


¹⁵ Gobernu Kontseiluak onetsitako zuzeneko dirulaguntzako ekimenak.

¹⁶ Eusko Legebiltzarrak onetsitako ekimen nominatiboak.



¹⁷ Ignacio Ellacuría saria bi erakunderi eman zitzaizen arren, biek hautagaitza bakarra osatzen zuten.




Jarraian, emandako dirulaguntzen banaketa geografikoa aurkezten da, agenteen arabera eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko egindako ekarpenaren arabera sailkatua.



 **GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK**





- 1 Euskadi: 6.611.637,02 € (% 13,60) 2 El Salvador: 4.114.100,86 € (% 8,47) 3 Guatemala: 3.679.591,88 € (% 7,57) 4 Peru: 3.146.793,61 € (% 6,47) 5 Kolonbia: 3.068.380,16 € (% 6,31) 6 Palestina: 2.822.658,40 € (% 5,81) 7 Senegal: 2.327.551,44 € (% 4,79)
 8 India: 2.153.026,39 € (% 4,44) 9 Honduras: 1.544.501,02 € (% 3,18) 10 Kuba: 1.426.325,46 € (% 2,93) 11 Ekuador: 1.238.778,65 € (% 2,55) 12 Nikaragua: 1.208.633,18 € (% 2,49) 13 Boli Kosta: 1.198.396,30 € (% 2,47) 14 Libano: 1.197.072,78 € (% 2,46)
 15 SEAD: 1.148.314,31 € (% 2,36) 16 Kongoko Errepublikoa Demokratikoa: 912.519,18 € (% 1,88) 17 Mexiko: 854.934,88 € (% 1,76) 18 Etiopia: 762.737,65 € (% 1,57) - Nazioartekoa: 700.000,00 € (% 1,45) 19 Burundi: 657.446,43 € (% 1,35)
 20 Somalia: 589.794,28 € (% 1,21) 21 Ginea-Bissau: 574.047,02 € (% 1,18) 22 Mali: 553.228,18 € (% 1,14) 23 Uganda: 546.666,67 € (% 1,12) 24 Niger: 536.235,23 € (% 1,10) 25 Bolivia: 524.769,60 € (% 1,09) 26 Costa Rica: 520.302,58 € (% 1,07)
 27 Brasil: 425.819,51 € (% 0,88) 28 Kamerun: 398.891,69 € (% 0,82) 29 Tanzania: 370.000,00 € (% 0,76) 30 Sudan: 347.900,00 € (% 0,72) 31 Kenya: 341.759,67 € (% 0,70) 32 Malawi: 300.000,00 € (% 0,62) 33 Mauritania: 210.227,00 € (% 0,43)
 34 Irak: 200.000,00 € (% 0,41) 35 Hego Sudan: 200.000,00 € (% 0,41) 36 Filipinak: 200.000,00 € (% 0,41) 37 Siria: 200.000,00 € (% 0,41) 38 Txad: 194.954,00 € (% 0,40) 39 Nigeria: 194.954,00 € (% 0,40) 40 Ruanda: 80.000,00 € (% 0,16)
 41 Burkina Faso: 64.666,67 € (% 0,13) 42 Benin: 64.666,67 € (% 0,13) 43 Sri Lanka: 62.500,00 € (% 0,13) 44 Mozambike: 62.500,00 € (% 0,13) 45 Venezuela: 62.500,00 € (% 0,13)



MEMORIA 2021

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

